

Itxaso Atutxa

«Pragmatismo
politikoan
oinarritzen gara,
ez daukagu hori
adierazteko
lotsarik»

- **Pablo Berasaluze** «20 urterekin debutatu eta hain azkar goian egotea ez da erraza eramaten»
- **Net Hurbil** Langileen iraultzak Euzkadi izena du Mexikon
- **Aiora Jaka** «Jatorrizkotik hurbil ibiltzea da oraindik itzultzailearen kontsigna»
- **Autismoa** Nazioarteko Biltzarra Donostian, ez kasualitatez
- **Josep Maria Artigal** Nola ikasi bigarren hizkuntza ipuinen bidez



HERRIA ETA ESKOLA Elkarlana ezinbesteko

Hirigintza

Francesco Tonucciren *Haurren hiria*

Udala

Auzogune naturalean hezteko eskubidea

Euskara

Eskolatik kalera, aisialdia da giltza

Ikas komunitatea

Denen benetako parte-hartzean oinarritua



Datorren
astean



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko apirilaren 21a, 2.365. zenbakia

ASTEKO GAIA

AUTISMOA Terapia aurrerakoi eta atzerakoiak etxe berean.
MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 4

PERTSONAIA

PABLO BERSALUZE: «Sakrifizio eta lan askorekin, lehen mailara bueltatzea lortu nuen». MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 10

GAIK

GASTEIZKO GAZTETXEA 25 urte muinoa zaintzen.
URKO SAENZ DE BURUAGA / 16

IRITZIAREN LEIHOA

EMAKUMEAREN IRUDIA ZINEMAN AMAIA LASA ALEGRIA / 20
ZORO DANTZA JOSE IGNAZIO ANSORENA / 22
BEZ-A IGO ETA ANTZOKIAK HUSTU

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN Marra gorriak. EDU ZELAIETA / 22

BERTSO BERRIAK Gaixo larriak. MIREN AMURIZA PLAZA / 23

ERDIKO KAIERA

AIORA JAKA: «Sarrionandiak maila berean jartzen ditu itzulpena eta sormen-lana». MIEL A. ELUSTONDO / 24

LITERATURA AMAIA ALVAREZ URIA / 28

MUSIKA JOXI UBEDA / 29

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 30

ALEA Euskal industriak trena hartu zueneko.

NAGORE IRAZUSTABARRENA / 31

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 32

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 33

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 34

TERMOMETROA

ITXASO ATUTXA: «EAJk herri honen independentzian sinesten du». MIKEL ASURMENDI / 35

NEOFAXISMOA GREZIAN Urrezko Egunsentia, sistemaren misioa betetzen. LIDE HERNANDO, AXIER LOPEZ / 40

JOSEP MARIA ARTIGAL Hiztunak entzulearen emozioa du nahitaezko. MIEL A. ELUSTONDO / 42

ETXEBIZITZA Zerga igoera etxe hutsei.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 47

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Euzkadi-ko langile iraultzaileen kooperatiba Mexikon. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Terapia aurrerakoi eta atzerakoienak etxe berean

Autismoaren arloan urtero egiten den kongresurik prestigiotsuena aurten AEBetatik kanpo egingo da bigarren aldiz. Donostian izango da, maiatzean, eta ez halaberharrez: autismoa duten pertsonen laguntzeko programarik garatuenetakoa dute Gipuzkoan. Hortik oso gertu aldiz, alor honetan berrogei urteko atzerapena dutela kexu dira Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Behereko gurasoak, Frantziako Estatuan psikoanalisiak (izan) duen protagonismoaren erruz.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Argazkiak: Dani Blanco

AITZOLEK 8 URTE BETEKO DITU IRAILEAN eta amarekin etorri da Gautena Gipuzkoako Autismo Elkartean duen hitzordura. Gaurko saioan egingo dutena irudien bidez aurreratu dio Jara Larreategi psikologoak Aitzoli, ordenagailuko pantailan. Ondoren, hizkietara jolastu dira hirurak: hitzak osatu dituzte hizkiekin, eta galderen bitartez bestearen hitz ezkutua asmatzen saiatu dira. Irakurketa eta idazketa modu erakargarrian lantzea da asmoa. Txaloka ospatu du Aitzolek psikologoaren hitz ezkutua asmatu izana; mutiko alaia da, geldirik egoten ez den horietakoa, “pixka bat *teatreroa*” dio amak, haurrak bere burua lurrera bota duenean, eta oso maitekorra da ingurukoekin, nahiz eta harremanak gauzatzeko eta adierazteko arazoak dituen. Animaliak atsegin ditu eta horregatik aukeratu du Baserria bigarren jolas gisa. Antzezten eta joko kooperatiboetan ere aritu dira, eta saio amaieran Porrotxen furgoneta erakutsi digu haurrak, pailazoaren jarraitzaile fina baita. Autismo hitzarekin burura etorri ohi zaigun pertsona isolatu eta bakartiaren antzik ez du Aitzolek.

Izan ere, Autismo Espektroaren Nahasmendua oso heterogeneoa da eta behar ezberdinak dituzten haurrak hartzen ditu bere baitan: mutur batean Asperger sindromea legoke —atzerapen intelektualik gabeko autismoa, labor esatearren— eta beste muturrean autismo sakona, atzerapen intelektualduna. “Garrantzitsua da aniztasun hori aintzat hartzea, abiapuntu orokor beretik oso ikuspegi

pertsonalizatura jo beharko baitu bakoitzaren tratamenduak”, dio Ramon Barinaga Gaute-nako zuzendariak. Hala, autismo mailaren arabera eta minusbaliotasun intelektuala izatearen edo ez izatearen arabera, ezaugarriak era batekoak edo besteak izango dira, baina oinarrian komunikazio eta sozializazio gaitasunari eragiten dio nahasmenduak. Ahoz nahiz bestela komunikatzeko arazoak izan ohi ditu haurrak; baita besteekin harremanak eta enpatia garatzeko zailtasunak ere; sarri oso

interes mugatuak dituzte; ekin-tza edo jarrera errepikakorrek eta lengoaiaren erabilera errepikakorra ezaugarri ohikoak dira; eta ulermen sozialerako gabeziak izan ditzakete —ondoko pertsona beste burmuin bat eta beste pertsona berezitu bat dela ulertzeko zailtasunak—.

Neskei baino lau bider gehiago eragiten die mutilei eta Barinagak azaldu digu azken ikerketen arabera 88 jaioberritatik batek autismoa duela. Neurobiologikoa da jatorria —umekian ematen den burmuinaren garapen atipikoa— eta frogatua dago ezaugarri genetikoak dituela, heredatu daitekeela, baina faktore anitzen ondorioa da.

Komunikazioa lantzea, hasieratik funtsezkoa

Diagnostiko egokia egiteko talde espezializatu dute Gautenan, mediku psikiatra bat eta sei psikologo. 2-3 urterekin identifikatu ohi da autismoa, eta bakoitzaren diagnostikotik abiatuta, dituen indargune eta ahulguneen arabera, laguntza programa indibiduala jaso-

Autismo mailaren arabera, ezaugarriak oso ezberdinak izan daitezke, baina oinarrian komunikazio eta sozializazio gaitasunari eragiten dio nahasmenduak



tzen dute haurrek. “Guk diogu autismoa duten pertsonen beharrak edozein pertsonarenak direla, baina egokitzen behar dituztela, erantzun berezituak –dio Barinagak–. Edonork bezala, harremanak behar ditu gainerako gizakiekin, eta horretarako dituen langak gainditzeko eta sozialki moldatzen laguntzen diegu guk”. Diagnostikoa egin eta lehenengo fasean, bizpahiru urtez, oinarritzkoa da komunikazioa lantzea, ikasteko gaitasuna eskainiko baitio horrek. Hitz egiteko zailtasun handiak izan ohi dituztenez, komunikazio bide alternatiboak bilatzen dira, irudi, errotulu, piktograma edo argazki bidez esaterako, memoria bisual ona izaten baitute. Tresna lagungarriak ugaritzen ari dira gainera, e-Mintza aplikazio informatikoa kasu, ordenagailu edo tabletaren pantailan ekintzak eta objektuak seinalatzen joateko baliagarria.

Aitzolekin ere piktograma bidez komunikatzen ziren hasieran, 2 urte eta erdirekin diagnostikoa egin eta Gautenara eraman zutenean. Dagoeneko aho-hizkuntza bereganatu du, nahiz eta atzerapena duen lengoia mailan eta hizkuntza ekolalikoa darabilen –entzun dituen esaldiak errepikatzen ditu, entzundako modu eta doinua imitatuz–. Gehienbat autonomia, sozializazioa eta komunikazioa indartu dituzte Aitzolen kasuan, eta guraso eta senitartekoei lagungarri zaizkien estrategiak erakustea izan da hel-

Jara Larreategi psikologoa, Aitzol eta haren ama Aintzane Ollokiegi, Gautenako saio batean. Mutiko alaia da Aitzol, geldirik egoten ez den horietakoa. Etxalarren bizi da eta “umea inguruko errealitatera moldatzeko oso garrantzitsua izan da herriaren inplikazioa, hori oso zaila izango litzateke hiri handi batean”, amaren hitzetan.

buru nagusia. Aholku horiek oinarritzkoak direla aitortu digu Aintzane Ollokiegi, Aitzolen amak, hasieran galduta sentitu baitziren, semearekin nola komunikatu ez zekitela: “Bertze lasaitasun batekin jokatzeko dugu orain eta Etxalarren oso eroso sentitzen gara, denek elkar ezagutzen dugulako eta babes handia dugulako. Sentsibilizatuta daude herriarrak, okinak adibidez piktogramak zituen okindegian, eta horrek guztiak autonomia garatzen laguntzen dio Aitzoli; umea inguruko errealitatera moldatzeko oso garrantzitsua izan da herriaren inplikazioa, eta hori lortzea oso zaila izango litzateke hiri handi batean”.

Hain justu, autismoa duten pertsonak ahal den neurrian gizartean barneratzea da Gautenaren xedea, bizi-kalitate ahalik eta onena izan dezaten. TEACCH metodoa dute inspirazio iturri: ikuspegi hezitzaile eta komunitarioan jartzen du indarra programak eta ikuspuntu ekologikoak hitz egiten du, alegia pertsonak behar duena ez dela isolatutako laguntza bat –asteen hainbeste ordu psikologoarekin–, baizik eta inguru normaletan integratuta egotea eta inguru horietan moldatu ahal izatea, bere bizitzan parte hartzen duten pertsona guztien elkarlanari esker.

Eskolan, bat gehiago

Garai batean asistentziazko edo osasun mentaleko zentroetan sartzen bazituzten ere, gaur

AUTISMOA

egun autismoa duten haur asko ikastetxe arruntetan ari dira, laguntza maila ezberdinekin. Behar handiena dutenentzat, ikasgela propioak ditu Gautenak, guztira 16 Gipuzkoako ikastetxe arruntetan banatuta, eta bospasei ikasle eta bi irakasle biltzen dira gelako. Aisialdian eta udalekuetan ere esku hartzen dute eta normalizatutako ekimenetan parte hartu ezin duten haurrentzat aisialdi propioa diseinatu du elkarteak, asteburutarako, senitartekoekin...

Aitzolek Etxalarko eskolan ikasten du. Hamar haur dira gelan eta tutoreaz gain hezitzaile propioa du berak, baita tableta ere, eskolako dinamika jarraitzeko lagungarri. Larreategi psikologoak azaldu duenez, ikastetxean dituzten jolas ugari Gautenak ere badituzte, “hau testuinguru artifiziala baita, kliniko, gero hemen landutakoa errealtatean praktika-ramateko baliagarria izan dadin. Baina helburua beti da errealtatea, horregatik da garrantzitsua eskolatzea, gainera hemen lantzen ez ditugun alderdiak lantzen dituzte ikasgelan eta beste umeek mugak erakusten dizkiote. Haienentzat ere aberasgarria da, dagoen aniztasunaz jabetzea”.

Nerabezaro eta helduaroan ere, integrazioa da xedea: lan munduan sartzeko Gureak sarera bideratzen dituzte, eta lanerako gaitasunik ez dutenak eguneko zentroetara. “Hori guztia inguru egonkor eta aurreikusgarrietan, zentzua duen errutina eta planifikazioa lagungarria baitaie”, gaineratu du Ramon Barinagak.

Azaldu moduan, oso anitza da autismoaren espektroa eta ondorioz baita bakoitzak, dituen baldintzen arabera, lortuko duen bila-

Behar dutena ez da isolatutako laguntza bat –astean hainbeste ordu psikologoarekin–, baizik eta inguru normaletan integratuta egotea eta inguru horietan moldatu ahal izatea, bere bizitzan parte hartzen dutenen elkarlanari esker

kaera eta autonomia ere. Orokorrean, dena den, programa on batekin positiboki eboluzionatzen dutela ziurtatu du zuzendariak: “Berezko mugek iraungo dute (tartean minusbalotasun intelektuala baldin badago, adibidez, aldaezina da hori), baina arindu daitezke, edo ahulguneak konpentsatzeko estrategiak landu. Autismoari lotuta portaera arazo ugari izan ohi dira (erasoak, haserrealdiak...) eta denborarekin hobetu egiten ditu tratamenduak. Kasu batzuetan, hala ere, medikamentuak erabiltzen dira. Gautenak laguntzen ditugun pertsonetatik %30ek baino gutxiagok jasotzen du medikazio psikotropikoa”.

Autismoa tratatzeko eredurik onenak dituzten herrialdeez galdetuta, herrialde eskandinaviarrak aipatu dizkigu Barinagak: “Oro har, erantzuna hobea eta homogeneousagoa da gizarte ongizatea garatuagoa duten herrialdeetan, eta herrialde eskandinaviarretan sistema publikoaren baitako babesa handia da, osasun, heziketa eta gizarte erakundeek eskaintako zerbitzuen bidez”. Zentzu horretan, Gautenak babes publiko handia dutela dio zuzendariak: “Ezgaitasunen bat duten pertsonen beharrei erantzuteko tradizio handia dago Gipuzkoan eta kontzertazio eredu oso zabaldua dago, ekimen sozialeko elkarleen eta administrazio publikoaren arteko elkarlanean oinarritua”. 1978an sortu zen Gautena, 600 bat familia artatzen dituzte eta 200 profesional ari dira lanean. APNABI-Autismo Bizkaiak ere antzeko eredu jarraitzen du eta 700 familia laguntzen ditu; Araban ekimen publikoa nagusitu da, zuzenean Diputazioa bera baita



Haur maitekorra da Aitzol (ezkerrean), baina harremanak adierazteko arazoak ditu. Gautenako zuzendari Ramon Barinagaren arabera (eskuineko argazkian), programa on batekin positiboki eboluzionatzen dute autismoa dutenak: “Berezko mugek iraungo dute, baina arindu daitezke, edo ahulguneak konpentsatzeko estrategiak landu”.

Azken ikerketen berri Kursaaleko kongresuan

AZKEN URTEOTARA ARTE, apenas egon den ikerketarik autismoaren arloan, baina 2.000. urtetik aurrera areagotu egin zen interesa. Ramon Barinaga Gaute-nako zuzendariaren esanetan, AEB buruan dago gai honetan, “han oso kapitalistak eta pragmatikoak direnez ulertu dutelako ikuspegi ekonomikotik ere kome-ni dela ikerketa garatzea, datuek baitiote autismoarekin jaio tako haur kopurua handia dela eta osasun publikoari eragiten diola”. Joaquín Fuentes mediku eta Gautenako aholkulari zientifikoak diagnostiko eta tratamendu eraginkorrenei buruzko ikerketa garrantzitsuak egin ditu eta bere gestioari esker, autismoaren ikerketez egiten den kongresurik prestigiotsuena Donostian egingo da maiatzaren 2tik 4ra bitartean, Kursaaen. IMFAR kongresua (International Meeting For Autism Research) 2001ean egin zen lehenengoz, eta zientzialari, psikiatra eta genetistei dago zuzendua. Prebentzio eta tratamenduan dauden azken ikerketez hitz egingo da, eta 1.600-1.800 aditu gerturatzea espero da. Teknikoa eta espezializatua da kongresua, baina Barinagak adierazi digunez, oso parte-hartzailea ere bada: eskola magistralak eskaini beharrean, interakti-bitatea eta tailerrak hobesten dira, eta ikerketa zentro-etako nahiz unibertsitateetako ikerlariek euren lana partekatzea da asmoa.

autismoa dutenen beharrei erantzuten diena; eta Nafarroan duela urtebete sortu zen ANA elkarteak, 130 familia artatzen dituen.

Psikoanalisiaren erreinuan

Oso bestelakoa da egoera Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherean. Dylanek 17 urte ditu eta autismo sakona dauka, ez da mintzatzen, 2 urtekoen adimena du, eta ez da sekula eskola izan, ez du heziketa egituraturik jaso eta packing delako teknika eta antzerakoak pairatu ditu haurtzaroan, zentro psikiatrikoetan. 5-10 gradu zentigradutan hoztutako izarra umelarekin haurraren gorputz biluzia momia bailitzan estu biltzea eta horrela 20 bat minutuz mantentzea da packing-a. Bigarren azal bat sortzen duela defendatzen dute psikoanalistek, azal psikikoa, iraganeko emozio eta sentsazioak berreskuratzeko eta inguruarekin konektatzeko balio duela. Dylanen gurasoek aldiz, argi dute autismoaren gaian Frantziako Estatuak atzerapen handia duela: “Ezjakinak ginen eta pentsatzen genuen ontsa zela, baina ikusi dugu gure semeak denbora asko galdu duela halakoekin eta ez du tratamendu onik jaso; hasieratik behar bezalako terapia izan balu, komunikazio gaitasun handiagoa eta atzerapen txikiagoa izango zukeen”.



Jean Marc Abadie eta Cécile Lafitte, Dylanen gurasoak. Semeak psikoanalisian oinarritutako tratamendu okerra jaso duela salatu dute. Iaz, Frantziako Osasun Aginte Gorenak psikoanalisi arbuia eta heziketaren eta integrazioaren alde egin zuen, lehen aldiz.

Arazoa da autismoa duten pertsonen orain arte arduratu diren terapeutek ez dutela prestakuntza egokia jaso, erabat psikoanalisian oinarritua baizik. Argentinan bezala, Frantzia pisu handia du psikoanalisiak eta autismoa betaurreko horietatik interpretatzea huts handia dela argitu du Cécile Lafittek. Dylanen ama eta Baionako TED Autisme elkarte-ko presidentea da Lafitte, eta bere hitzetan, psikoanalistek diote amaren eta seme-alabaren arteko harreman toxikoan dagoela autismoaren jatorria, lotura horretan okerre bat ematen denean: “Euren ustez, autismoa duten umeentzat hautu bat da ez komunika-tzea, oskol modukoa sortzen dute inguruan eta oskol hori kentzea da psikoanalisten helburua, umeek hautua aldatu eta bat-batean esango dutelakoan, ‘orain fini da, komunika-tuko naiz eta hitz egingen dut’”.

Abiaburu horren emaitza ez da gurasoen gustukoa izan: autismoa duten haurren %20 baino ez dituzte eskolatzen Estatuan eta gehienak zentro berezietara bideratu izan dituzte, Institutu Mediko Hezigarrietara (IME) edota eguneko ospitaleetara. Iparraldean bost IME daude —bakarra, Kanboko, autismoan espezializatua eta lan txukuna egi-ten duena, Lafitteren esanetan— eta eguneko



ABADIEK ETA LAFITTEK UTZITAKOAK

Ezkerrean, autismoa duten haurrak izara umelekin biltzen dituen packing teknikaren aurkako protesta, Biarritzen. Eskuinean, Dylan amarekin. 17 urte ditu Dylanek eta autismo sakona dauka, baina komunikazioa hobetzea lortu dutenetik, onera egin du bere egoerak, nabarmen.

ospital bat, Baionan. Teoria psikoanalitikoak nagusitu da horietan eta “ez zuten fitsik egiten, haurra igerilekuan sartu eta uretan nola mugitzen zen behatu, packing-a... eta halakoak, baina ez portaera-terapiarik, ez tratamendu konduktista eta hezigarrik, ez ezer. Gurasoen elkarreok aitzinatu dugu egoera hobetzea, guk geuk erran behar izan diegu terapeutei nola jokatu autismodun hurrekin, nola landu komunikazioa, ez direlako profesionalak, ez dute formakuntzarik izan, ez da euren errua”.

Pixkanaka aldatzen, gurasoen borrokari esker

Benetako guda izan da guraso elkarrekin eta psikoanalisiaren aldekoen artekoa. 2011ko urrian, oihartzun handia izan zuen packing-a salatzekeo gurasoek Biarritzen egindako protestak, eta gauzak aldatzen ari dira. Iaz, Frantziako Osasun Aginte Gorenak idatzia kalera-tu zuen autismoaren tratamenduan psikoanalisia arbuia-tuz eta heziketaren eta integrazioaren alde. Teoria psikoanalitikoak debekatu zituen terapeuten formakuntzan, tartean packing-a bezalako teknikak –etikaren eta giza-eskubideen aurkako praktika, nazioarteko adituen arabera–. Minusbalotasunen bat duten haurrak eskola arruntetan integratzeko urratsak ere ematen ari dira, gutxika. Integrazio hori ahalbidetzen zuen legea iraultza modukoa izan zen 2005ean, baina eskolatzeari

ez da beti modurik onenean egin. Hala ere, Biarritz, Donibane Lohizune eta Hazparneko eskoletan autismodun bosna haur integratzea lortu dute, hezitzaile espezializatu banarekin.

“Urrutitik gatoz –dio Dylanen amak–, baina geroa ona izango da, Osasun Aginte Gorenaren norabide aldaketari esker. Gainera gurasoak beraiek formatzen dira eta Gipuzkoan Gautena izatea oso baliagarria da guretzat, asko lagundu digute. Medikuek egiten dituzten diagnostikoak eta terapeuten tratamenduak hobetu behar dira, eta horretarako psikiatreek formakuntza on bat ukan behar dute, berdin hezitzaileek, ortofonistek, irakasleek... Ikasi behar dute nola funtzionatzen duen autismoak, nola funtzionatzen duen buruak, ondo dihoazkien gauzak proposatzeko. Eta psikoanalisia baztertu, noski. Bide luzea dauka oraindik Frantziako Estatuak, urtetako pentsamoldea ez da gauetik egunera aldatzen, baina bagoaz”.

Dylanek ere aitzinera egin du. Duela sei urte hasi zen ortofonistarekin eta inflexio puntua izan zen komunikazioa lantzeari ekitea. Irudi bidezko tresna egin zuten, behar ohikoenak adieraz zitza-n, eta e-Mintza aplikazioari esker, gauza bera tabletako pantailan egin dezake orain, erosoago. “Komunikatu ezinak oso negatiboki eragiten zion Dylani, hozka egiten zuen, garrasi, biolento jartzen zen... eta orain askoz ere lasaiago dago. Bere bizitza arrunt aldatu da eta lagunek eurek erraten digute, ‘jada ez du oi-hu egiten, bareago dago, begietara begiratzen du, eskua ematen du...’. Beti izango da elbarritua, sakonki, baina hobeto dago, dudarik gabe”, dio aitak, Jean Marc Abadie-k. Tratamendu aproposarekin, azken finean, bizi-kalitate hobea lor dezakete Autismo Espek-troaren Nahas-menduarekin jaiotzen direnek. ■



“Psikiatreek, ortofonistek, irakasleek... formakuntza on bat ukan behar dute eta autismoaren tratamenduan psikoanalisia baztertu behar da, noski. Bide luzea dauka oraindik Frantziako Estatuak, baina bagoaz”

Cécile Lafitte, Baionako TED Autisme



dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

Dagoeneko 125 dokumental eskura

Amerikanuak
Anuken egia
Arrhash, pozoina
Banlieues. Pariseko errebolta
Basque hotel
Bidaia Intimoak
Botilen hilerria
Companys eta Agirre azken erbesterantz
Debekatuta dago oroitzea
Egunero
Egunkaria, hamar urte geroago
Elburua Gernika
Euskal Herria: Ezkutuko zorra
Euskararen jatorria: Enigma europar bat
Gudari baten egunerokoa
Haizea eta sustraiak
Insumisioa. 20 urte desobeditzen
Iparralde XXI

Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
Iruña-Veleiako misterioa
Itoitz hustu arte
Itsasoren alaba
Langile autonomia
Leku hutsak, hitz beteak
Nire bizi osoa espetxean
Nömadak Tx
Oroitarrria
Perurena
Pluja seca - Euri lehorra
Sagarren denbora
Sahara marathón
Salda badago
Santi Brouard. Euskal Herria Osagai. Duintasuna omen
The Yes Men fix the world
Tortura Euskal Herrian

...eta askoz gehiago

Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu,
jarri gurekin harremanetan:

multimedia@argia.com

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

argia.com

EGUZKI
BIDEOAK

elkarlanean



PABLO BERASALUZE

«Sakrifizio eta lan askorekin, lehen mailara bueltatzea lortu nuen»

Profesionaletan debutatu zuenetik hamabost urte bete berri direnean, Berasaluze VIII.ak izena aldatu du: Berasaluze II.a da orain, aitaren omenez. Haren heriotzak bortizki kolpatu zuen pilotariaren bizitza eta frontoietako errendimendua, baina zulotik atera eta fin ari da berriro, maila gorenean.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Argazkiak: Dani Blanco

Aita pilotaria izanik, ume-umetatik murgildu zara pilotaren eta pilotarien munduan.

Familia guztiak pilotan jokatzen zuen, aititek, osabek, aita; zortzi aritu gara pilotan, bi zesta puntaz eta beste denak eskuz, eta aitarekin txiki-txikitatik joaten nintzen frontoira, zapatu eta domekak profesionalen partiduak ikusten ematen nituen. Aldageletan asko egoten nintzen, garaiko pilotarien artean, Ladis Galarza, Julian Retegi, Panpi Ladutxe, Tolosa... eta urte batzuk geroago profesionaletan Retegiren aurka jokatzea, haurra nintzela berarekin aldageletan egon eta 20 urterekin haren aurka jokatzea, oso gauza polita izan zen. Astegunetan ere, Berrizko frontoian egunero hiru-lau orduz aritzen ginen. Aitari zor diot dena pilota munduan, nahiz eta nik inoiz ez nuen buruan izan profesional izatea; pilota gustatzen zitzaidan, frontoira joaten nintzen disfrutatzea eta azkenean profesionaletara iritsi naiz.

Berrizko pilota-eskolan hasi zinen, eta handik Mañariakora, 11-12 urterekin.

Osabak Berrizko klubetik bota ninduen, Bilbon txapelketa bat jokatu nuelako Apatamonasterioko Jaiorekin. Etxera joan nintzen negarrez eta aitari esan nion gehiago ez nuela jokatu Berrizko frontoian. Mañarira aldatu eta han oso ondo portatu ziren nirekin, sei-zazpi urte egin nituen, eta gero afizionatu mailan hasi nintzen.

Eta Espainian partidu ugari jokatu zenituen afizionatutan. Bada euskal pilotarekiko afiziorik Espainia aldean?

Bai, bada. 16 eta 20 urteen artean Salamanca, Burgos, Segovia aldean partidu asko jokatu nituen, ekainetik irailera 15-20 partidu hilean eta jokatzea da pilotan ikasteko inportantea; frontoi txikiak dira hangoak eta oso ondo etorri zitzaidan ikasteko.

“20 urterekin debutatu eta hain azkar goian egotea, fama, telebista... Gazte batentzat ez da erraza hori guztia eramatea”

Asegarcerekin kontratua etorri zen ondoren, profesional mailan debuta eta berehalako arrakasta. Arriskutsua al da bat-bateko ospea?

Debutatu eta bosgarren partidua jada Ruben Belokirekin jokatu nuen, hortik aurrera partidu estelarrak jokatzen hasi nintzen, pilotari handiekin (Unanue, Alustiza, Jokin Etxaniz, Nagore, Retegi...) eta egia esan 20 urterekin debutatu eta hain azkar hain goian egotea... Askotan ez dakizu non

NORTASUN AGIRIA

Pablo Berasaluze Zabala, 1977ko irailean Berrizen jaioa. Durangon bizi da egun. Asegarceko bere fitxak dio 1,74 metroko altuera eta 79 kilo dituela. Bergarako frontoian debutatu zuen profesionaletan, 1998ko otsailean, eta urtebetera txapeldunorde izan zen Binakako Txapelketan. Aurrelari bizkaitarrak gantxo gozatzen du gehien, teknika baita bere arma nagusia.





"Azken sei-zazpi urteak pilotako politenak izan dira, momentu onean nago", esan digu Berasaluzek, Berrizko Berrizburu kiroldegian. "Aitari zor diot dena pilota munduan, haren izenarekin jokatu nahi ditut azken urte hauek".

zauden ere, hodei batean zaude, eta profesio-naletan sartzen dira fama, telebista... Gazte batentzat ez da erraza hori guztia eramatea. Nik uste ez nuela hain txarto eraman, nahiz eta profesionalak zaindu egin behar duen topera eta garai batean igual dezente ateratzen nintzen, ez nituen gauzak behar bezala egin, gaztea nintzen eta lagunekin irtetea gustatzen zitzaidan.

Parranda zalea izatea leporatzen zizuten zaletuek?

Nik uste baietz. Jendeak kritikatzen ninduen eta egia esan irteten nintzen, baina inoiz ez naiz izan hain *golfoa* ere. Depresioan erori eta hiru urtetan ez dut uste gau bakar batean atera nintzenik, ez nuen alkohol tantarik probatu, eta halere jendeak berba asko egiten zuen nigatik, gauza batzuetan asmatuko zuten eta beste batzuetan ez, kirolariak gara eta erakustokian gaude, baina azkenean gura dudana jendea eta maite dudana daukat ondoan eta beste askok esaten due-nari ez diot kasurik egiten.

Depresioa aipatu duzu. Lau urte eman zenituen aparretan, 2003an aitaren ezusteko heriotzak gogor jo zintuen arte.

Behera etorri nintzen guztiz eta bizpahiru urte txar pasa nituen. Antsietate krisia jasan, depresioan sartu eta psikiatra eta psikologo artean igaro nituen urte haiek, Bilbon, osaba-izeben etxean bizitzen. Momentu zailak izan ziren, medikamentu asko hartzen nuen eta pilotan

"Jendeak berba asko egiten zuen nigatik, kirolariak gara eta erakustokian gaude, baina azkenean maite dudana jendea daukat ondoan"

"Medikamentu asko hartzen nuen eta pilotan horrela jokatzeko ezinezkoa zen, gorputza nahiko hila geratzen zen eta txispa barik ateratzen nintzen frontoira"

horrela jokatzeko ezinezkoa zen. Aurretik ez nuen inoiz halako botikarik hartu eta ez nekien nolako eragina zuten, baina antidepresiboa eta hiruzpalau lasaigarri hartuta gorputza nahiko hila geratzen zen eta *txispa* barik ateratzen nintzen frontoira, ia gogo barik.

Pasa zitzazun burutik pilota behin betiko uztea?

Bai, momentu askotan. Frontoira ateratzen nintzen eta ez nintzen gustura jokatzeko ari, nire partiduak ez ziren batere onak, entrenatu ere ez nintzen asko entrenatzen, gogorik ere ez nuelako. Horrela jokatzeko eta sufritzen egoteko, hobe da uztea, pentsatzen nuen, baina momentu gogorretan ere jarraitzea erabaki nuen, enpresak asteburutan partidu bat jartzen zidan eta nolabait ihesbidea zen niretzat, nahiz eta sufritzen egon.

Noiz eta nola lortu zenuen "hona arte" esatea?

Beti izan dut babesa, familiarena, gainean egon zen lagun on batena... eta nik nire alde-tik ipinitakoa ere inportantea izan da, baxu egon naizenean fuertea izan naiz eta aurrera egin dut. Zaila egin zitzaidan hortik irtetea, baina medikamentuak utzi eta sakrifizio eta entrenamendu askorekin, lehenengo mailara bueltatzea lortu nuen. Lortu nuen gauzak beste modu batera ikustea.

Bilbon igaro zenituen urte haiek. Berrizen eta Durangon ere bizi izan zara. Zer nahiago duzu, hiria ala herria?

Bizitzeko herria nahiago, lasaia goa da. Bilbon oso ondo pasa nuen, baina herrian oso gustura bizi izan naiz beti. Mendia ere herritik gertuago dago, eta oso gustura sentitzen naiz mendian. Orain Durangon bizi naiz, amarekin, baina amak Berrizen taberna dauka eta bazkaltzera hona etortzen naiz, denbora nahiko pasatzen dut hemen jaioterrian.

Josetxo Areitio duzu botilero. Zer bilatzen duzu botileroarengan, pilotaz asko dakien norbait ala lagun bat?

Josetxok zazpi-zortzi urte daramatza nirekin, oso laguna dut eta berak ezagutzen nau ondoen, egu-nero gaude elkarrekin. Haren "errua" da orain nagoen tokian egotea eta asko eskertu behar diot, asko lagundu dit entrenatzen, momentu txarretan asko hitz egin dut berarekin... Futboletik dator eta nirekin hasi zenean pilotaz ez zekien ezer, eta asko ikasi duen arren nik botilero nahi dut ez pilotaz dakienagatik, baizik eta pertsona moduan ezagutzen



nauelako eta bere aholku eta animoak oso baliagarriak zaizkidalako.

Hark esana da Panpi Ladutxe bezalakoa zarela frontoian, baina bertsio hobetua.

Panpi Ladutxe bakarra dago, ikusi dudana pilotaririk artistena izan da eta eskertzekoak dira Josetxoren hitzak, baina bakoitzak bere izaera eta jokoa du.

lazko Lau T'erdikoan hirugarren geratu zinen eta aurtengo Binakakoan fin zabilta. Zein txapelketa duzu gustukoen?

Binakakoa da orain arte gehien gustatu zaidana, baina pasa den urtean Lau T'erdian asko disfrutatu nuen, momentu onean harrapatu ninduen, ikusi nuen hor goian egoteko aukera badaukadala, eta orain esango nuke biak ditudala gustuko. Buruz burukoa ez dut jokatu, hor ez naizelako gustura aritzen, pilotari handiak daude eta euren kontra ezin dut jokatu buruz buru, jakin behar da non zauden, errealista izan behar da eta nik uste egokiagoa dudala ondo prestatzea Lau T'erdikoa eta Binakakoa, ondo moldatzen naizelako horietan.

Bikotekidearekin moldatzea beti ez da erraza. Partidu ona jokatzen ari bazara eta atzelariak huts asko egiten badu, zer egin ez amorratzeko?

Ruben Belokirekin partidu txar asko egin ditut nik eta bera maisua izan da hori nola gobernatu ikasteko; orain gazte askorekin jokatzen dut eta pilotak galtzen badituzte ez diet inoiz ezer txarrik esaten, animatu egiten ditut. Momentu horietatik denak pasatu gara, denok galtzen ditugu pilotak, eta animatzea eta aurrera segitzea da egin beharrekoa.

Azken txapelketan bikotekide izan duzun Ander Albisu animatzea egokitu zaizu adibidez?

Pasa den urtean ere berarekin jokatu nuen,

Ogueta

"Debutatu nuenetik kariño berezia hartu zidan eta hagitz ondo hitz egiten zuen beti nitaz, eskertzekoa da pilotari handi batek nigatik horrela berba egitea. Oso harreman ona nuen harekin eta orain baita bere semearekin ere".

beti animatu izan dut eta aurtun ere, momentu txarretan, hor egon naiz. Kritika asko jaso ditu eta ez dut uste hainbestekoak merezi zituenik, pilotari handia da eta momentu txarrak denek ditugu.

Beteranoenetakoa zara eta une gozoa bizi duzu, teknikoki indartsu.

Oso gustura. Azken sei-zazpi urteak pilotako politenak izan dira, asko disfrutatu dut eta momentu onean aurkitzen naiz bai, gauzak ondo egiten eta oso kontent. Topera nabil entrenatzen, astean zehar egunero, azken finean hori da nire lana eta gauzak ondo irteten ari dira, baina atzetik lana dago.

Noizko pilotari txapeldun bizkaitar bat?

Lau T'erdikoan atarian geratu nintzen, baina oso zaila da. Mikel Urrutikoetxearengan daukat esperantzak jarriak, txapelduna izateko dena dauka. Oraindik 23 urte ditu eta nik uste hemendik hiruzpalau urtera aukera guztiak izango dituela buruz buruko txapela Bizkaira ekartzeko.

1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com



AZKEN HITZA

Inspirazioa

“Batuetan nahi duzu eta ez duzu zure burua aurkitzen frontoian, partiduen eta momentu pertsonalaren arabera, egun horretan gorputza zein baldintzetan dagoen... Ni beti topera ateratzen naiz, ahal dudana guztia ematera, eta batuetan gauzak ondo ateratzen dira eta bestetan ez”.

Salva Bergara, bai Iñigo Zalbidea, Iñaki Gurrutxaga... 35 urterekin hiru urterako kontratua sinatzeak esan nahi du nigan konfiantza dutela eta inportantea da hori. Orain niri dagokit lana egitea eta erakustea, ea goi mailan mantentzen naizen.

Tentsio handiko txapelketa izan da Binakakoa. Batetik, beti zaudete bueltaka piloten aferarekin, biziegiak ote diren ala ez. Irizpideak mugatuko zenituzke ala libre utziko zenuke aukeraketa?

Ez dut uste egungo sistema gaizki dagoenik, beti egon dira tirabirak horren inguruan eta morboa ematen dio pilotari, horrela jarraitu behar dela uste dut.

Bestetik, giro gaiztotua sumatu da, Titinen hainbat adierazpen tarteko. Ba al daude ezinikusiak pilotarien artean?

Ez, ondo eramaten gara denak eta Titinena partiduko berotasuna da, edozeini gertatu ahal zaio eta ez zaio buelta askorik eman behar.

Enpresen aurka egin zituen adierazpenekin ados zaude? Interesengatik mugitzen dira enpresak, piloten aukeraketan adibidez pilotari batzuk lagunduz eta besteak ez?

Tira, beroan esandakoak dira, baina ez dut uste enpresek batzuen edo besteen alde egin dutenik, partidu horretan Bengoetxeak eta Beroizek merezimendu osoz irabazi zuten eta pilotek ez zuten errua, ezta enpresek ere. Partidua jokatu, irabazi eta kito, hori da egin beharrekoa.

Zuk zure enpresarekin, Asegarcerekin, kontratua luzatu berri duzu.

Pilotan oso momentu txarrak izan ditut eta Asegarce oso ondo portatu da nirekin, bai

Handienak

“Ruben Beloki ikusi dudana atzelaririk onena izan da, baita pertsona eta adiskide moduan ere. Eta pilotaririk onena, osoena, Aimar Olaizola da: dena ondo egiten du. Urte asko daramatzat pilota ikusten, 30 bai, eta lehenago ez dakit zer egongo zen baina ikusi dudanetik bera da onena, nire ustez. Bera hor egonda zaila da txapelketak irabaztea, baina aldi berean gauza handia da berarekin jokatzeko”.

“Mutikoek orain ez dute ordu askorik sartzen frontoian, pare bat edo hiru astean baino ez, eta horrela oso zaila da pilotari ateratzea”

Etorkizunean haurrak entrenatzea gustatuko litzazukeela esan izan duzu, nola ikusten duzu pilota-eskolen lana?

Mutikoek orain ez dute ordu askorik sartzen frontoian, pare bat edo hiru astean baino ez, eta nik adibidez egunean hiruzpalau sartzen nituen, 6 urteetatik hasita. Astean frontoian hain ordu gutxi sartuta oso zaila da pilotari ateratzea eta nik uste Bizkaiko Federazioaren aldetik gauzak hobeto egin daitezkeela, pilota txikitatik bultzatzea komeni da: ez da zentratu behar 16-17 urteko pilotarietan, behean egin behar da lana, 6-7-8 urtekoekin, eta hor ez da nahikoa lan egiten. Eraitza ikusten da gero, Bizkaian oso pilotari gutxi irteten baita. Bizkaia osotik ibiliko diren monitoreak ipini beharko lituzke Federazioak, eta mutiko gazteekin ordu asko sartu.

Zergatik ez dago neskarik eskuz jokatzeko?

Ez dakit. Duela urte asko Berrizen ibiltzen ginenean neska batzuk ere aritzen ziren, sei bat neska denara, tartean nire arreba, eta oso ondo moldatzen ziren. Nesketako batek gure aurka jokatzeko zuen eta irabazi egiten ginen, baina orain eskua baino zabalduago dago pala nesken artean, ea afizioa handitzen den.

Berasaluze VIII.a izatetik Berasaluze II.a izatera igaro zara, aitaren omenez. Hala ere, jendeak Pablito deituko dizu aurrerantzean ere?

Tira, beti izan naiz Pablito, debutatu nuenetik, beste batzuentzat Pablo, biak ditut gus-tuko, ez zait inporta. Berasaluze II.a jartzea aitari zor nion, aspalditik neukan buruan eta azkenetakoa izango den kontratua momentu aproposa zela erabaki nuen, aitaren izenarekin jokatu nahi ditut azken urte hauek. ■



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

25 urte muinoa zaintzen

1988ko erditze hark zeresan handia emango zuen eremua eskaini zion Gasteizi. Paretik kentzeko saiakerak gaudituz, autogestioan eta asanblearismoan oinarritutako proiektua aurrera ateratzea lortu dute gazteek. Aurten, sasoirik onenean ospatuko du mende laurdena Gasteizko gaztetxeak.

| URKO SAENZ DE BURUAGA |

Argazkiak: Gasteizko gaztetxea

GAZTETXEAREN GURASOAK 1986an elkartu ziren. Hamarkada horretako eszenatoki latzean polizia eta drogak ziren antzezle nagusiak, eta gidoia aldatzeko asmoz Zapa kultur elkarteak sortu zuen hiriko gazte talde batek. Ekintza kulturalak antolatzen zituzten bitartean, orduko arazoetan arreta jarri zuten. Hausnarketa lan horren ondorioa izan zen gune propioa behar zutela. 1988ko apirilaren 28an, arabarren zaindaria den Prudentzio Deunaren egunean, 300 bat gazte San Franzisko Aldaparen goialdean dagoen Faroloia-aren aurrean bildu eta apezpikuaren lorazainaren etxea zenerantz abiatu ziren manifestazioan. Atea ostikoz bota eta hirira irekita gelditu zen eraikina, betiko.

Krisiaren aurrean, jaia

25 urte pasa dira ordutik, gora-behera handiko urteak. Horietako hamar eman ditu Iñaki Goñik gaztetxearen funtzionamenduaz arduratzen den gazte asanbladan. Etxearen urtemuga erabili du aitzakiatzat belaunaldi berriei lekukoa pasatzeko. Ordezkorik ez da falta, zorionez.

Gazte asanblada astelehenero biltzen da eta eredu horren baitan hartzen dira erabaki guztiak. Hainbat lantaldetan antolatuta dago, materiala kanpora eraman eta kanpotik ekartzeko, propaganda egiteko, tabernaz arduratzeko edo ekonomia kudeatzeko. Kultur taldea, agenda lotzeaz arduratzen dena, aseta dago. Gaztetxeak festak antolatzeko aukera eskaintzen die kolektiboei, euren proiektuetarako dirua lortzearen. Murrizketak aurrekontu guztietan antzematen ari diren garai hauetan, irtenbide egokia da hau, eta ia zibidez 50 festa baino gehiago egin zituzten.

Iñaki Goñiren ustez, “jende gehienak asteburuko aisialdiarekin lotzen du gaztetxea”.

Horregatik, ekintzarik ezagunena kontzertuak dira, baina egunero irekitzen da gaztetxea, eta astean zehar hitzaldiak eta tailerrak daude. Doakoak dira tailer guztiak eta horietako batzuk asanbladatik sortu dira, euskara tailerrak adibidez, gehienbat unibertsitateko ikasle atzerritarrei zuzenduak. Tailerren bat martxan jarri nahi duen edonork ateak zabalik ditu. Autodefentsa klaseak, esaterako, egun batean gaztetxearen atea jo zuen australiar batek ematen ditu. Eta eskulan tailerra espontaneoki abiatu zen: esparru horri buruz ikasteko gura zuen talde bat elkartzeko hasi zen, eta geroztik eta jende gehiago batu zaie.

Muinoko etxeak duen ekimenik interesgarrienetakoa Tutti Free izenekoa da. Bertan biltzen dira jendeak eramandako objektuak (arropa, batez ere), jabe berri baten zain. Ez da trukea, berez. Edonork nahi duena hartu edota utz dezake. Zerbitzu hau ostegun, ostiral eta larunbatetan dago zabalik, arratsaldean.

Gazte asanblada astelehenero biltzen da eta eredu horren baitan hartzen dira erabaki guztiak. Hainbat lantaldetan antolatuta dago gaztetxea

Hasiera zaila

Orain natural funtzionatzen duen hau aurrea ateratzea ez zen batere erraza izan. 1980ko hamarkadan, okupazio mugimendua oso garatuta zegoen Europan, baina ez hainbeste frankismoaren errepresio girotik esnatu berria zen Espainiako Estatuan. Gainera, Europatik zetorren eredu bizileku izatera bideratutako okupazioa zen.

Barne arazoak ere ezagutu ditu gaztetxeko asanbladak. “Horrelako mugimendu irekia antolatzen duzunean, badakizu zer ez duzun aurkituko”, azaldu du Goñik, “baina, hala ere, oso ikuspuntu ezberdinak daude”. Aniztasun horrek tirabirak sortu zituen etxearen plantamendua definitzerakoan: praktikoei lan intelektualaren alde egiten zuten, teoriko-



URKO SAENZ DE BURUAGA



URKO SAENZ DE BURUAGA



ek aldiz, eskulana bultzatzea nahiago zuten. Azkenean, eztabaida eta elkarrizketa izan dira gakoa, gai zehatzen inguruan sortutako iritzi kontrajarriak adosteko.

Hirian errotutako proiektua

Gasteizko Udalak esparru sozio-kulturalen du eskaintzarik onenetarikoa, Gizarte Etxeen bidez. Kirola, kultura, aisia eta herritarrentzako arreta zerbitzuak biltzen dituzten zentroen sare hau Jose Angel Cuerda alkatearen garaian hasi zen garatzen. Lehenengo Gizarte Etxea 1985an zabaldu zen, gaztetxea okupatu baino hiru urte lehenago. Gaur egun, mota horretako hamabi zentro daude Arabako hiriburuan, eta beste bi abian dira. Hala ere, gaztetxean ez dute kompetentziari buruz hitz egiteko arrazoirik ikusten, bien planteamenduak guztiz ezberdinak direlakoan: “Gizarte Etxeak oso instituzionalizatuta daude, formalagoak dira. Gaztetxean giro lasaia dago, eta filosofia parte-hartzaileagoa da”.

Bi proiektuen osagarritasunaren erakusgarri da bai bata eta bai bestearen erabilera gora doala etengabe. Are gehiago, Goñik bien arteko alderaketa erabiltzen du gaztetxearen garapena deskribatzeko: “Lehen jende gutxiago hurbiltzen zen, ezezagunagoa zelako. Orain, gaztetxea kentzea, Iparralde Gizarte Etxea kentzea bezala izango litzateke”. Gaztetxearen

Ezkerrean, goian, gaztetxearen okupazioaren argazkia, eta eskuinean, Tutti Free ekimena: edonork nahi duena utzi eta har dezake. Behean, ezker-eskuin: egin berri dituzten lanen irudia, eszenatokiari azken ukituak emanez; liburutegia; eta Iñaki Goñi gaztetxeko kidea.

irudia oso errotuta dago hirian, bai proiektu bezala, bai sinbolo gisa. Eta badirudi ofizialtasunetik at dauden proiektu hauen indartzea dela joera: “Azken urteotan kristoren gorakada nabaritu dugu. Izan daiteke krisia edo izan daiteke jendea egoerarekin nazkatuta dagoela eta alternatibak bilatzen hasi dela”.

Oztopoak gaintitzen

Gaztetxea eraistearen mamua hasieratik egon da eraikinaren inguruan. Okupazioaren momentuan Gasteizko alkateordea zen Maria Jesus Aguirreri egozten zaio esaldi hau: “Hondeamakinak etortzerakoan alde egin beharko dute”. Gaztetxea botatzeko mehatxua hasieratik egon bada ere, eta zenbait ideia proposatu izan badira ere, ez da inoiz proiektu argirik zehaztu. Eraikinaren kontra sutsuen agertu zena Alfonso Alonso izan zen. Egun Kongresuan Alderdi Popularraren bozeramailea dena, Gasteizko alkatea izan zen 1999 eta 2007 urteen artean. Gaztetxeari buruz esandako “gustatzen ez zaidalako botako dut” opari ederra izan zen gazte mugimenduarentzat.

Alonsok izan zuen burutapenik sonatuena bosgarren dorrea eraikitzea izan zen. Gasteizko skylinea ezaguna da bertan bereizten diren lau dorreengatik: Santa Maria Katedralarena, eta San Miguel, San Pedro eta San

Ekintzaz jositako hilabetea

25. urteurrena ospatzeko, Gasteizko gaztetxeak aurpegia garbitu du. Tabernako zoruari baldosak jarri dizkiote eta eszenatokia berritu dute. 1988ko apirilaren 28an apezpikuaren lorezainaren etxeraino egin zen manifestaldia omentzea aukeratu zuen gazte asanbladak ekintzez josi duten hilabete honi hasiera emateko. 6an Faroloiaren aurrean elkartu eta Aiztogile kalean zehar ibili zen kalejira. Hilaren 27ra arte, ekintzak daude programatuta ia egunero. Kontzertuak, mahai-inguruak, hitzaldiak, bertso saioak eta barreterapiaren gisako tailerrak, besteak beste. Burokrazia dela-eta, kalean ekitaldiak antolatzea zaila bazaie ere, bi ekintza antolatu dira gaztetxearen alboan dagoen Etxauri plazan: afrikar tailerrekin girotuko den haurren eguna eta bazkari herrikoia.

Bizente elizenak. PPko alkateak beste bat marraztu nahi zuen, non eta apezpikuaren lorezainaren etxea izandakoaren tokian. “Alonsorena garairik txarrena izan zen –dio Goñik–, baina baita lan gehien egin genuen garaia ere, sozializazio lana, batez ere”. Eraso horien aurrean, basoetako iratxoak jaitsi ziren gaztetxea defendatzera. Kanpaina hori eta haren harira antolatu zen manifestaldia 80 kolektibok baino gehiagok babestu zuten.

Hala Bedi irrati libreak gaztetxearekin batera garatu du bere ibilbidea. Gasteizko alde zaharreko bi auzokide hauek elkarrekin ospatu zituzten urteurrenak (irratia 25 urte, gaztetxeak 20) 2008ko urrian, “Piztu Gasteiz!” lelopean. Hiru urte lehenago, Gazte Eguna egin zen eta bi ospakizunetan milaka lagunek hartu zuten parte, gaztetxearen hormak zutabe sendoetan bermatuta daudela erakutsiz. Goñik adierazi moduan, “eraikina botatzen badute, honek guztiak haien kontra egingo du”. Hala ere, ez dirudi horrelakorik gerta daitekeenik etorkizun hurbilean: “Udalarekin ez daukagu harremanik, eta hori ona da”. 2011 urtean Bilboko Kukatza bota zutenean, Javier Maroto Gasteizko alkateak argi utzi zuen bere udal taldeak ez duela gaztetxearekin arazorik nahi. “Dena dagoen moduan geratuko da”, esan zuen.

Beraz, momentuz bere kokaleku pribilegiatuan jarraituko du, hiriaren erdigunean. Ez dauka etxebizitzarik inguruan eta zeratekin zerikusia duten ordutegiak (batez ere kontzertuenak) auzokideekin adostuta dituzte; bizikidetza ona izan da beti. Etorkizuna eraikitzeko Gasteizko gaztetxeak zabalik ditu ateak eta eraikinaren giltzak gazteek izateaz gain, eurak dira giltza. ■



Bi erreba

Chopin eta Xenpelar

**BERTSO MUSIKATUA
APIRILAK 28, IGANDEA
SUTEGIN, 19:00**

Pianojolea: Xabier Lizaso
Bertsolaria: Andoni Egaña

noaqua

Usurbilgo Udalak


Euzko Foru Erkidegoa

Sarrera: 10€ (Usurbilgo Txiriboga tabernan, Noaqua!ko egoitzan eta egunean bertan) Noaqua!ko bazkideek 8€ tan erosi ahal izango dute Noaqua!ko egoitzan aldeaz aurretik.

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**

Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
© 943 371 545 - denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak





DANI BLANCO

**Amaia
Lasa
Alegria**



IDAZLEA

Emakumearen irudia zineman

EZ DA ERRAZA artea zer den zehaztea, baina arte orori eskatzen dioguna ederra izatea da, bere edertasunaz gu hunkitzea, biguntzea, gure barne sakona lasaitzea.

Zinema artea da, zazpigarren artea deitzen diote ere: arkitektura, dantza, eskultura, pintura, literatura, musikaren ondoren etorri dena.

Parisen 1895eko abenduaren 28an estreinatu zenetik, zinema arte herrikoia izan da, edonork eskura dezakeena, jende askorengana heldu daitekeen ametsa.

Filmek kontatzen dizkiguten narrazioekin batera, zenbait balore, ezaguera eta portaera ere erakusten dizkigute, gu oharkabe hezten gaituztenak.

Gazte-gaztetatik zinema aretoetako jarelkuan eserita lasai, gozo-gozo kontatzen dizkiguten gaietan murgildurik den-dena irensten dugu, modu meheki batean jarraitu behar genituzkeen bideak erakusten dizkigu. Arte boteretsua benetan.

Zineman emakumearen irudia gogotik aldatzen eta iraultzen da emakumea bera zuzendari denean. Sortzaile, egile izanik, narrazioaren subjektu bihurturik, berari dagozkion gogoetak, desioak, ametsak eta frustrazioak erakusten ditu

Hemeretzigarren gizaldiaren bukaeran hasi zenetik gure egunetara iritsi bitartean, zinemak eraldaketa ugari jasan du teknikaren aldetik, hala ere, ahalmen handiko ekoiztetxeek eskaintzen dizkiguten irudiak —kontakizunekin batera—, funtsean ez dira aldatu andreari dagokionean. Hainbat filmetan agertzen zaizkigun emakumeak: heterosexualak, senarrarekiko leialak, ulerkorak, otzanak, ama zintzoak, finak, sozietatearen arauak eta mugak errespetatzen dakizkitenak dira.

Badira aurreko irudiari kontrajarriak direnak ere, andre gaizkileak, limurtzailak, baina horiek gaizki bukatzen dute beti. Gero, bestalde, egile batzuen zuzen-

daritzapean emazteak ama zikiratzaile, kastratzaileak bihurtzen dira semearen bizitza suntsiturik: 1960. urtean Alfred Hitchcock-en *Psycho*n agertzen den bezala.

Objektu desiragarriak emakumeak, Marlene Dietrich izan zen aipagarrienetakoa Von Stenberg zuzendariaren eskutik. Federico Fellini, berriz, 1979. urtean emakumeen hirian amesten duen emazte benetan bitxia eskaini zigun: gerritik behera sentsuala, sexuala. Gerritik gora aldiz, Ama Doloreetakoaren antzekoa isilisilik sufrimendu guztia jasaten duena.

Zein korapilatsuak diren gizon batzuk!

Laurogeita hamargarren hamarkadan andrearekiko sentsibilitatea erakusten zuten zuzendariak azaldu ziren. Ridley Scotteren *Thelma & Louise* dugu adibidea. Egun aske bat bizi nahi duten bi andreren istorioa kontatzen digu, bortxaketa baten erruz egoera okertzen zaien arren, ausardia handiz aurrera egiten dute.

Zineman emakumearen irudia gogotik aldatzen eta iraultzen da emakumea bera zuzendari denean. Sortzaile, egile izanik, narrazioaren subjektu bihurturik, berari dagozkion gogoetak, desioak, ametsak eta frustrazioak erakusten ditu.

Zinemagintzan geroz eta emakume gehiagok dihardu lanean. Besteak beste hor dugu Agnès Varda belgikarra, “uhin berrien amona” izenarekin ezagutua dena. 1962an egin zuen *Cléo de 5 à 7* arrakastatsuan, emakume baten egun bateko bi orduak kontatzen dizkigu sendagilearen diagnostikoaren zain dagoen bitartean. Jane Campion australiarrak, *The piano* filmaren egileak, emakume baten sakoneko sentipenen berri ematen digu narrazio horren bidez. Marleen Gorris holandarrek *Antonia et ses filles* lanean, Antonia protagonistaren bidez, bizitzaren inguruko hausnarketa zoragarria egiten du. Atzerriko pelikula onenaren Oscar saria jaso zuen 1996an.

Hala ere, normalki emakume zuzendarien zinemak ez dira hain erraz zabaltzen, ekoiztetxe handiei interesatzen ez zaielako. ■





Jose Ignazio Ansorena

TXISTULARIA ♦



DANI BLANCO

Zoro dantza

ANTZINAKO *zoro dantzak* Erdi Aroan izan zuten urrezko garaia, baina, modu batean edo bestean, gure egunetan ere mantentzen dira. Jende aldrak, mozo-rrotuta, kalez kale saltoka eroarena egiten eta atari batzuen aurrean puska eskean. Inauteri edo xaribarien antzekoak. Arautegi sozialaren koordinatetatik kanpo geratzen diren emozio asko –pertsonek eta taldeen errainetan ezkutuan– askatzeko eta lasaitzeko zirrikituak dira *Zoro dantzak*. Horiek gabe, leherketa pertsonal eta sozial izugarriak gerta litezke eta. Euskal abesti zaharrak bazekien: “Gabon gauean zoro ez dena zororik handiena da”.

Joseba Gabilondo Michigan State Universityko irakasleak *New York. Euskal postnazionalismoaren utopia*z... saiakeraren aurkezpenean honela esan omen zuen *Berria*-ko kazetariari sinetsiz gero: “Gu (euskaldunok) ez gara inoiz normalak izan, eta ez dugu normalak izan behar”. Nik, kontrakoa. Horixe behar dugula normalak izan. Normala izatea *normei* edo arauari jarraiki bizi-tzea da eta, konturatuta edo jabetu gabe, nahi edo nahi ez, beti bizi gara arau batzuei men eginez.

Gloria Fuertesek poema hau idatzi zuen:

*Normaltasuna,
zorotasun era kontrolatua da.
adi zintzoari,
ausart
ikaragarria baita.*

Nork eta nola kontrolatzen duen gure zorotasuna da kontua. Nondik datozen arau horiek.

Etorri zaizkit gure erromerietan parte hartzen duten adiskide dantzazale batzuk kezkatuta pasodobleak jotzen ditugulako.

– *Pasodoblea* ez al da espainola? Ez al da zezen musika? Ez al da militarren doinua?

Wikipedia beldurgarriak denari baietz erantzuten dio. Errealitateari, tradizioari, urte askotako jardunari erreparatuta, ezetz nik. Wikipedia azaleko normaltasun arrotza da. Nire arrazoiak xehetzeko luze jardun beharko nuke: zer den dantza zahar bat *espainola* izatea (bide horretatik fandangoa espainola eta arinarina ingeles-frantsesa izango lirakeke. Eta rocka?), izen soilaz ari garen edo dantzaz, orain *pasodoble* izenaz ezagutzen denaz edo XIX. mendearen amaierako pasodobleaz (Raimundo Sarriegik Donostiako Danborradarako idatzi zituenaz, esaterako).

Laburrean: pasodoblea proletarioen dantza da jatorriz, gorputzen arteko gertutasuna eta ukipena ahalbidetzen duena, denon parte-hartzea bideratzen duena, hain baita erraza, boteretsuen moral publikoa- ren inposaketari aurre egiten zion dantza lotua.

Gure zorotasuna geurok kontrolatzeko, dantza dezagun pasodoblea, fandangoa, muxikoa edo zoro dantza. Geure normaltasunez.

Nor bere zoroak bizi baitu.

Eskaintza: Iñaki Irigoien, euskal dantzen ikertzaile jatorrari eskainia.

Gogo onez! ■



DANI BLANCO



Edu
Zelaieta



IDAZLEA

Marra gorriak

ONDARE komuna kudeatzen duten politikariak ez dira metafora sortzaile apartak. Garai bateko politikan ezinbestekoak ziren erretorika eta poetika ez dira sobera alor emankorrak egungo agintarien jardunean. Hori salatzen du, esaterako, hainbat molde behin eta berriz baliatzeak: bide-orria, marra gorriak...

Eta nik, ez bainuen Demokraziaren leziorik galdu nahi, marra gorrien irudia txertatu dut neure diskurtsoan. Hala, idazten hasi orduko marra gorria agertzen zait ordenagailuan, noraino ailega naitekeen jakinarazteko. Ohartua naizenez, baina,

ordenagailuak ez du beti gisa berean jokatzeko; hau da, hitz guztiek ez dute berdin bizi aduana gorriarekiko tentsioa.

Ustez *xuxena* dena okerra izaki, nonbait. Nola liteke, bestela, auzoa dudana Salburua- ren izena galaraztea, edota bertako etxetik ikusten dudana Olarizu mendia ukatzea?

Euskara eta informatika uztartzeko lanetan aritu zenak ongi zehaztu zuen (nahi gabe?) Euskal Herria:

Gros, Sagues edota Uliá ez bezala, gorritz salatzen dizkit pantailak egunero habitatzeko ditudan etxeak. ■





Gorka Bereziartua Mitxelena

♦ ARGIAKO KAZETARIA

BEZa igo eta antzokiak hustu

ESPAINIAKO GOBERNUAK BEZa igotzeak arte eszenikoen sektorea itolarrian jarri du: Norka Chiapussok *Artez* aldizkarian idatzitako artikulu batek ematen du larritasunaren neurria. FAETEDAk (Espainiako Estatuko Antzerki eta Dantza Elkarleen Federazioa) zergaren inpaktua aztertzen duen txostena aurkeztu zuen martxoaren 21ean Chiapussok dioenez eta zenbakiak izutzeak dira:

- 1.798.394 ikusle galdu dira urtebetean (%31,43 gutxiago).
- 600 lanpostu galdu dira.
- Enpresen diru-sarrerak %32,98 jaitsi dira.

– Eta BEZa igotzeak ez dio Estatuari diru gehiago ekarri. Zergen bidez jasotako diruak (BEZa, PFEZa eta Sozietateen Zerga kontuan hartuta) 2.978.151 euro gutxiago izan dira iazko datuarekin alderatuta.

2012ko irailean igo zuen BEZa Espainiako Gobernuak antzokietan, %8tik %21era eta erabakiak hiru “efektu gaizto” izan ditu Chiapussoren ustez.

1) Herritarren eros-ahalmena jaitsi da eta beraz gutxiago gastatu dezakete antzokietan.

2) Antzokien kostuak igo dira: “Dena da garestiagoa, beraz kaxetarik igotzen dira eta gastu zuzen eta zeharkakoak garestitzen direnez, kontratazioa erortzen da berriz, edo gutxitu egiten da”.

3) Dagoen publikoarekin ere ez dago gauza handirik egiterik, izan ere, ordaintzen dutenaren heren bat zergen poltsara eta egileen gastuetara doa. “Adibidez, antzoki batek 10.000 euro biltzen baditu saio batean, jakin behar du 6.500 euroko etekin garbia izango duela. Horren

parte bat konpainiarentzat da eta beste partea antzokiarentzat. (...) Antzerki talde batek 12 lagun baldin badauzka, dagokion zatia-rekin bere gain hartu behar ditu 12 bidaia, 12 egonaldi (bi egunekoak gutxienez), dietak, soldatak, PFEZak, eszenografiaren garraioa eta materialena, promozioa eta gastuen zerrenda luzea”.

2012ko irailean igo zuen BEZa Espainiako Gobernuak antzokietan, %8tik %21era eta erabakiak hiru “efektu gaizto” izan ditu Chiapussoren ustez

Egongo da esango duenik, eta ez zaio arrazoi faltako, gauzak egiteko bestelako ereduak ere badaudela, ekonomikoki jasangarriagoa den antzerkia egin litekeela, talde txikiak, areto txikiak, *tour* txikiak... Baina egia da, era berean, Espainia dela antzokietako BEZa hain altu daukan bakarra: Alemanian %7, Frantzia (eta beraz Ipar Euskal Herrian) %2,1, Suitzan %2,5 eta Norvegia %0 (bai, zero).

“A, baina horiek Europa dira”, dio PIIGS kontzientzia oso barkeratuta daukan norbaitek. Portugalen teatro sarrerek %13ko BEZa dute, ordea. Lotsa galanta, gutxienez lusitaniarrak baino zibilizatuago, kultura-go eta aberatsago zirela uste zuten espainiar eta ez-hain-espainiarrentzat. ■



BERTSO BERRIAK

Miren Amuriza Plaza



XDZ

Doinua: Naufragoarena.

Gaixo larriak

Lausotuz doan begirazuna, lehortzen ari den behazuna, azkar dabilen bihotza edo motelduz doan garuna, (bis) birika biren jarduna, hezur arrakaladuna, denon bidaia laguna... Medikuaen paper bat baino gehiago da osasuna, falta den arte behar adina estimatzen ez duguna. (bis)

Presoentzako goitik behera onartezina den egoera, lege soil bat da Espainia eta Frantziaren arabera. (bis) Osasuna ukatzera helduta zer nahi dute ba? Bi izen baina muin bera, Parot Doktrina aplikatzea azken finean haxe da: gaixo daudenak kondenatzea heriotza zigorrera. (bis)

Euskal Herrian epeak epe, latz joan direnez bi hilabete, falta direnei agur ta ohore kantatu nahi genieke. (bis) Nahiz eta amorruz bete, minak min, nekeak neke, asko dugu egiteke! Denok minutu batzuk eman ez jarraitzen badugu tente, hamabost presok euren bizitzak berreskura ditzakete. (bis) ■



«Sarrionandiak maila berean jartzen ditu itzulpena eta sormen-lana»

Orain dela urte eta erdi *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika* Joseba Sarrionandiaren lanetan doktore-tesia irakurri zuen Aiora Jaka irakasleak Euskal Herriko Unibertsitatean. Argitalpenak iaz ikusi zuen argia, Euskaltzaindiaren IKER atalean. Joseba Sarrionandiak itzultitako lanetan barna abiatu gara Jakarekin, itzulpengintzaren historia eta teoriak lagun.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

Diozu euskaraz ari den lehenengo itzultzaile postmodernoa dugula Sarrionandia...

Batzuk ados izango dira postmoderno izendapen horren inguruan, eta beste batzuk ez. Izan ere, gauza konplexua da. Diziplina bakoitzak bere modura erabili du postmodernismoa, esanahi ezberdinak ditu hitzak. Nik, modernoa eta postmodernoa ezberdindu nahi izan ditut tesian, nahiz eta mugak ez diren garbi. Azken finean, modernitatearen jarraipena izango litzateke postmodernitatea, haren garapena, eboluzioa. Lotuta daude biak, eta zail da bereiztea. Arriskutsua izan liteke banaketa, eta postmodernismoak berak zalantzan jartzen ditu banaketa bitar horiek. Hala ere, kontraesan guztiak hor diren arren, eta lana errazteko asmotan, bien arteko bereizketa egin dut. Horrela, itzulpen moder-

noa, itzulpengintza bera zientzia egiten dutenean hasiko litzateke. Mende askoan oso diziplina enpirikoa izan da itzulpengintza, norberak ahal zuen bezala jardun ohi zuen, esperientzia beste teoriarik gabe. Modernitatean, XX. mendearen erdi aldera, itzulpengintzak zientzia autonomoaren maila hartzen du: itzulpen arauak, itzulpenaren ezaugarriak, fideltasunari buruzko eztabaida, jatorrizkoa errespetatu beharra... Itzulpenari buruzko gogoeta da. Postmodernoeak, berriz, esango dute arau emate hori ez dela gauza zehatza, preskriptibo izan ordez nahiago dute deskriptibo jardun, zientzia perfektuaren ezintasunak bistara ekartzen dituzte, itzultzeko modu bakarra, testua ulertzeko modu bakarra, dagoela ukatzen dute. Itzulpengintza ez dela zientzia absolutua diote.

Itzulpengintza modernoa

“Bigarren Mundu Gerraz gerokoa da itzulpengintza modernoa. Mundu osoa harremanetan jarri zen, elkar ulertu beharra zegoen, itzuli beharra. Gerra garaian, etsaiaren hizkuntza jakin behar zuten, kodeak deskodetu... Mundu Gerra amaitu ondoren, berriz, nazioarteko biltzarrak egiten hasi ziren, eta horra interpretazioaren beharra ere sortu. Bateko militarrek, besteko profesionalek, itzulpengintzaren inguruko gogoeta egin zuten. Postmodernismoak, berriz, 70eko eta 80ko hamarkadetan batik bat, zalantzan jarriko ditu ordu arteko pentsamendu asko. Hauek baino lehen, hala ere, badira filosofia korrante batzuk, postmodernitatearen zantzuak erakutsi dituztenak. Dena dela, Kristo aurretik ere itzultzen ari ziren, eta orduan ere bazituzten kezak”.

Joseba Sarrionandia, zure iritziz, gure “lehen itzultzaile postmodernoa” genuke...

Komatxo artean, betiere. Gurean, lehen aldiz, Sarrionandia kontziente da itzulpena ez dela inoiz lan perfektua, ez dagoela testu bat itzultzeko modu bakarra, ezinezkoa dela... Leizarragarekin hasi eta XX. mende arte, itzultzaileek beren lanari egindako sarrerak aztertu eta beti da lelo bat, bera: Jainkoaren hitza errespetatu beharra, jatorrizkoa sakratua da, egia, absolutua... “Itzultzaile ezjakin eta xume honek ahal duen zintzoen eta fidelen itzultzeko ahalegina egin du. Barkatu huts egin badut”. Horrela diote. Fideltasuna dute helburu, eta, barkamen eske ari dira beti, badaezpada. Sarrionandiak, aldiz, erabat hausten du



horrekin. Itzultzailea sortzailea da, haren iritziz. Itzultzaileak sortu eta birsortu egiten du aurreko testu bat, bere interpretazioaren arabera. Maila berean jartzen ditu itzulpena eta sormen-lana. Ordu arte bigarren mailakoa zen itzulpena, zen erreproduktzioa, zen kopia, prestigiorik ez zuen. Askotan, itzultzailearen izenik ere ez zen agertzen!

Sarrionandiaren baitan, itzulpenari buruzko iritzia beti bat eta bera izan da, edo izan du garapenik?

Oso interesgarria da *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* liburuari egiten dion hitzaurrea. 1985eko liburua da eta, ordurako, uste horretan zen Sarrionandia. Itzulpena, sortzea da, haren ustez. Urte batzuk lehenago, 1978an, *Pott* aldizkarian, bada testu bat argigarria: *Itzulpena eta traizioaren praktika* du izenburua. Ez darama sinadurarik, Pottugalet e ez bada. Bernardo Atxagarena dela diote, baina Sarrionandia ere hor nonbait ibiliko zela ez dago zalantzarik. Uste dut ordurako eginga zuela gogoeta. Hala ere, hor bada kontu bat, hau da, Sarrionandiak nahiko fidel itzultzen duela. Sorkuntza gorabehera, ez da jatorrizkotik askorik urruntzen. Nahiko zehatza da. Kontua da berak ez duela fidelitasuna aldarrikatzen, ez du irizpide nagusizat hartzen. *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* dio haren liburuaren izenburuak. “Ene” poemak, “nireak”, sorkuntza izan, edo birsorkuntza.

Lehenengoa dugu bide horretan, baina Jon Mirande eta Gabriel Aresti ere aipatu dituzu zure tesian...

Bai Mirande, eta bai Aresti, aurrekari genituzke. Denetarik itzultzen hasi ziren biak. Ordu arte, testu sakratuak itzuli izan ziren gehienbat, eta, horiekin batera, gure ondoko

“Jatorrizkotik nolabait hurbil ibiltzea da oraindik kontsigna”

Prestigioa

“Itzulpena beti izan da bigarren mailako gauza. Itzultzaileak berak ere ez dira ezagunak. Autoreak ezagutzen dugu, ez itzultzailea. Beharbada, euskaraz, gaur egun, itzultzaileak promozionatzen ari gara, baina gauza berria da. Gaztelaniaz irakurtzen dugunean, esaterako, Pessoa irakurri, Baudelaire irakurri, ez dugu itzultzailearen berririk, ez dakigu nor diren ere... Euskarazko itzulpenei dagokienez, uste dut gehienbat itzultzaileok eta zenbait irakasle eta ikertzailek irakurtzen ditugula itzulpen testuak, Literatura Unibertsala bildumako liburuak eta beste. Irakurle ohiko batek, beharbada ez du bilduma ezagutzen, gaztelaniaz irakurriko ditu hainbat autore atzeritar, itzulia den ez den batere konturatu gabe. Euskarazko liburuak denean, eta itzulpena, gehiegi! Eta ikastolako ikasleak ez dira gauza berria. Hor zerbait bada, alferkeria, ohitura falta... Itzulpenak onak dira gaur egun, ez dago aitzakiarik”.

hizkuntzetan testu kanonikotzat jotzen zituzten lanak, hau da, klasikoak: Sofokles, Platon, Horazio... sistematikoki itzuli zituzten, proiektu nazionalista baten barruan, ondoko hizkuntzari “gu ere bagara” esanez bezala. Hor dira Orixe, Andima Ibiñagabeitia, Jokin Zaitegi eta beste. Erbestekoak. Mirandek erabat hautsi zuen bide horrekin, erabat hautsi erlijioarekin. Hark beste asmo batzuk zituen: Nietzsche, bretoiak... Bide bat zabaldu zuen, nahiz eta ez zuen lortu jarraitu ziezaioten. Sarrionandiak, ordea, Miranderen eragina jasoko du. Hasteko, Mirandek zer testu itzuli erabakitzen du. Klasikoak ontzat emanda ere, gustuko dituenak itzultzen ditu. Horiek argitaratzen saiatuagatik ere, gutxitan lortu zuen argitara ziezakioten.

Eta Gabriel Aresti?

Arestik ere asko zabaldu zuen aukera. Poesia sozialaren bidetik jo zuen, Espainiako hainbat poeta gustatzen zitzaizkion... Nazim Hikmet itzuli zuen, Bocaccio... Esan nahi dut, bai Mirandek eta bai Arestik urrats handia egin zutela, aurrekoek ireki ez zuten bidea zabaldu zuten, eta garrantzitsu da hori Sarrionandiarengan. Bestalde, gogoeta aldetik ere, Mirandek eta Arestik zalantzan jarri zuten fidelitasuna, birsorkuntza aldarrikatzen dute. Benetako testuak dituzu, apokrifikoak ere bai, sorkuntza diren, itzulpenak diren ez dakigu... Muga estuak hausten hasi ziren biak.

Izkiriaturik... aipatu duzu lehen.

Sarrionandiak hango eta hemengo antologiak erabili zituen liburu hori egiteko. Egilea Sarrionandia bera da, ordea, berak egin du aukera, berak birsortu ditu testuak. Sorkuntzarako tresna zaizkio itzulgaiak. Ezberdina litzateke, uste dut nik, itzulpena enkarguzkoa izan balitz. Esan nahi dut, lana enkarguzkoa denean, baldintzak argialetxeak, edo dagokionak, ezarri ohi ditu. Joanes Leizarragari Joana Albretekin Biblia itzultzeko agindu zionean, zenbait baldintza jarriko zizkion, helburua seinalatuko zion. Jatorrizko testuaren eta itzulpenaren arteko sokatira hor dago beti, baina nork bere gogoz testu bat itzultzen duenean –Sarrionandiak askotan egin duen bezala–, askatasuna handiagoa da, helburua ez da fidelitasuna, birsorkuntza baizik.

Sarrionandia itzultzen ari delarik, birsorkuntzak badu neurrik, edo mugarik gabekoa da libertatea?

Nik uste Sarrionandia nahita ari dela birsortzen, hain zuzen itzulpena gauza estua dela uste duenari erantzuteko asmotan. Itzultzeko



askatasuna hartzen du Sarrionandiak, egilearen autoritatea zalantzan jartzen du... 80ko hamarkadan Latinoamerikako autoreen ideiarekin bat egiten du: “Ez dago testu origina-lik”. Zioten testu guztiak zirela aurreko testu baten berridazki, dena denona da... Muturreko iritzia da, nahi bada, baina hortik ere bada Sarrionandiaren obran: “Itzultzea birsortzea da, eta muturreraino eramango dut asmoa”, esanez bezala. Baina esan dut lehenago ere, enkarguzko lana denean, muga errespetatuko lukeela uste dut. Sarrionandiak egiten dituen itzulpenetan bada jolasa, jolas egiten du irakurlearekin, batean origina-lean, beste- itzulia, hurrena apokrifoa... Ematen du irakurleari zera esaten diola: “Zer alde dago, bada, sormen lanaren eta itzulpenaren artean? Engainatu zaitut”. Bestalde, hor da plagioa ere! Bernardo Atxagak ere idatzi du gai horretaz, aldarrikatu du plagioa. Hor da beti Borges-en ipuin famatu hura, “Pierre Menard, autor del Quijote”. Jolasa da, ipuina, baina hantxe erakusten du Borges-ek fidel-tasunaren ideia muturreraino eraman nahi denean zer gertatzen den. Sormenaren eta itzulpenaren arteko mugaren inguruan ari da. Postmodernismoak hartu duen ideia da: ez dago mugarik, dena da lauso...

Dena behe-laino.

Horixe. Dena libre. Hori ere arriskutsua da...

Itzultzaile zara zu zeu ere, eta jakinaren gainean ari zara. Nondik ari da gureko itzultzailea?

Tesia egin eta gero, horri erantzuten hasteko garaia izan liteke. Alegia, bada Sarrionandia-

Pierre Menard, Kixotearen egile

Ez zuen nahi beste Kixote bat konposatu —aski gauza erraza—, “Kixotea” baizik.

Ez dago esan beharrik ez ziola sekula

jatorrizkoaren transkribapen mekaniko bati

ekin; ez zen kopiatzea noski haren asmoa.

Miguel de Cervantesenarekin

—hitzez hitz eta lerrorik lerro— bat etor zitezen orrialde batzuk sortzea zen Menard-en gutizia miresgarria.

ren mailako egile edo itzultzailearik, hain modu librean itzultzen jarduten duenik? Ez dakit. Ederra litzateke horretaz azterketa egitea. Garai batean, zenbait jende bere gogoz egin zituen hainbat itzulpen. Gaur egun, enkarguzkoa da nagusi. Izango da EIZI Eren Literatura Unibertsala bilduma, izango da haur eta gazte literaturako liburua, izango da Jokin Zaitegi Sariketa, argitaletxeren baten gogoa... Horietan, irizpide zehatzak eta muga nahiko estuak ditu itzultzaileak, hasiera-hasieratik. Hala ere, gaur egun onartua dago itzulpena itzultzailearena dela, gauza jakina da itzultzaileak nolabaiteko askatasuna duela, lizentziak hartuko dituela. Nik uste betiko joan zirela itzultzaileak egiten zituen barkamen eske haiek.

Zer diozu zeure buruaz? Maialen Marinekin Jokin Zaitegi Sariketa irabazia duzu, txineratik Mo Yan-en Nagusia gero eta umoretsuago dago ipuin bilduma itzultzen ari zarete...

Jatorrizkotik nolabait hurbil ibiltzea da oraindik kontsigna. Are gehiago, gure proiektua aukeratu izanaren arrazoietarik bat da txineratik gertuena egotea. Beste bat, euskaraz ondo funtzionatzeko duela. Azken finean, horixe izango da beti xedea. Jatorrizkoaren eta itzulitakoaren arteko sokatiran ibiltzea dagokigu. Oreka bilatzea da gaur egun gehien baloratzen dena. XVIII. mendean, Frantzian, esaten zen *Les Belles Infidèles*, eder infidelak —esaldiari darion matxismoa gorabehera—, izan behar zutela itzulpenek, ederrak. Hori zen irizpidea. ■





Helduen literatura | ITZULPENA

Nire amaren autobiografia
Jamaica Kincaid

Itzulpena: Alberto Martínez de la Cuadra
Alberdania-Erein-Igela, 2012

Ni jaio nintzen urtean hil zen nire ama

HITZ HORIEKIN hasten da liburua.

Nola idatziko zenuke zure amaren autobiografia? Nola harilkatuko zenuke haren memoria? Nola eraikiko zenituzke zure izatearen sustraiak? 1996an argitaratu zen lan hau, bost urtez egon zen hura idazten, eta kritikari batzuek esan zuten ez zela egiazko autobiografia, Alberto Martínez de la Cuadra itzultzaileak esan bezala, lehen pertsonako bakarrikzeta bat da liburu honetan duguna, fikziozko pertsonaia batek bere bizitza kontatzen digu literatur genero honen konbentzioei muzin eginez.

Britainiar Handiko kolonia izandako Karibeko irla bat da bizitza honen tes-tuingurua, kolonizatzaile eta kolonizatuaren arteko harremanak agertzen zaizki-gu bertan, eta egoera postkolonial honen ondorioak aletzen dizkigu protago-nistak. Bere hildako ama karibekoa zen, ia desagerrarazita dagoen herriaren ondorengoetako bat, eta bere aitak afrikar jatorriko ama eta eskoziar jatorriko aita izan zituen polizia diruzale handinahia, garaileen alde lerratzen dena. Hauek dira haren jatorria.

Bere emakume izaerari ere erreparatzen dio, eta honek ezartzen dizkion bal-dintzei. Gainera, aipatu berri dugun egoera postkolonialean egonda, emakume klase desberdinak daudela agerian uzten digu: “andere bat asmakizun landuen konbinazio bat dela, itxurakerien, aurpegiko eta gorputz atalen apainketen, dis-tortsioen, gezurren eta alferrikako ahaleginen bilduma bat. Ni emakumea nin-tzen, eta emakume gisa banuen definizio labur bat: bi bular, irekidura txiki bat nire hankartearen, umetoki bat”.

Gayatri Ch. Spivak ikertzaileak idatzi zuen “Can the subaltern speak?” tes-tua gogorarazi digu liburu honek. Kincaidek hori egiten duelako, subalternoa-ri, historiak isilarazi duen subjektu zapalduari, ahotsa ematen dio, bere historia konta dezan. Hala, bere bizitzaren kontakizunean gogoetak tartekatzen ditu, eta galderak botatzen ditu bere egoeraz: “Eta nik zer galdetzen dut? Zein gal-dera egin dezaket nik? Ez daukat ezer. Ez naiz gizona. Zerk birarazten du mundua nire aurka eta nire antza duten guztien aurka?”

Emakumea izanik senarra topatzea eta seme-alabak izatea litzateke haren patua, baina berak goiz erabakitzen du ez duela haurrik izango eta berandu ematen du ezkontzeko pausoa. Hona hemen honi buruz esandakoa: “Etsi-etsian gizonekin ezkondu nahi izatea, jakitera heldu naizenez, ez da emaku-meek egiten duten hutsegite bat, baizik eta, bakarrik, tira, beste zer uzten zaie egiten?”.

Bere bizitza kontatuz bere amari bizia ematen dio, ahotsa, izena eta izana, bere iragana eta etorkizunaren artean zubia eraikitzen du eta bere identitatea, bizirik den bitartean, argitzen saiatzen jarraitzen du, “inoiz ezin maitatuko zuen jendez beteriko leku batean”. ■

Amaia Alvarez Uria



1 irakurri



2 hautatu



3 erabili



4 Egin iruzkina



Oso banda
Joseba Irazoki
Bidehuts, 2012

Musikari bakarreko banda

ARTISTA da Joseba. Musikari aparta, edozein estilo jotzen primeran moldatzen da, sekulako irudimena du, eta oso gustu ona du doinuak sortzeko eta jotzeko garaian.

Jakin-min handia izan du beti. Bere sentimenduak, kezak eta egonezina adierazteko forma, soinu eta doinu berriak bilatzen ahalegintzen da etengabe. Eta lortzen du. Beti harritzen gaitu. Bere emanaldi-performaceak ikusgarriak dira, paregabeak. Aho bete hortz gelditzen gara musika tresnak jotzeko erakusten duen trebeziarekin eta irudimenarekin, batean jotzeko duen gaitasunarekin, bere gatz eta piperrarekin, eta bere umore onarekin.

Denborarekin ahotsa modu egokian erabiltzen asmatu du, eta gero eta hobeto kantatzen du edo baliatzen du ahotsa, berak sortutako doinuen eta hotsen gainean, eta bere estiloa sortzea lortu du.

Urte bukaeran kaleratu zuen *Oso banda* lana berak bakarrik egin du, *one man band* moduan. Gitarrei eta erabiltzen dituen gainerako tresnei hitz eginarazten die, hainbat soinuren efektuak eta programazioak baliatzen ditu, eta kantatu ere egiten du. Erritmoen eta soinuen anabasa neurtua sortzen du,



FOTOPANICO.BLOGSPOT.COM

eta lau konposizio bitxi dira emaitza: blues, folk eta psikodelia kutsuko lau esperimentu. Gordinak, indartsuak eta hun-kigarriak. Hitzak bereziak dira, bere kantatzeko eta ahoskatzeko modua bezala. Halaber, aipagarria da Ramon M. Zabalegik egindako diseinu ikusgarria, eta diskoaren mamiarekin bat dator erabat.

Bere ibilbidean, besteak beste, Xabier Montoiarekin,

Maixa ta Ixiarrekin, Koldo eta Arantxarekin, eta Triki Ta Ke, Tanta, Mengele Quartet, Onddo eta On Benito taldeekin aritu da. Joseba Irazoki gisa hainbat disko kaleratu ditu, Do bere bakarkako beste egitasmoarekin ere aritu izan da, eta disko ugari grabazioetan parte hartu du.

Gaur egun, Atom Rhumba taldearekin, Pettirekin nahiz Rafa Ruedarekin jotzen du, eta harrigarria bada ere, Josebak *one man band* gisa aritzeko astia izaten du. Gu horrekin pozik gaude, Joseba jotzen ikusteaz eta entzuteaz beti gozatzten baitugu.

Aupa Joseba! Segi horrela! ■

Joxi Ubeda



Liburu azoka


Barakaldon, apirilaren 19tik 28ra, Herriko Plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Argibide. Salerosketa bat egitean ematen den diru kopuru.
2. Edari. Begirada.
3. Telefono-sarea erabiliz dokumentuak igortzeko sistema. Salatzeko joera duena.
4. Egiazale. Mehe.
5. Naizen hau. Ahul, makal. Larruazaleko gaixotasun.
6. Gurdiaren ziri. Orojakin, oro dakiena.
7. Abade edo abadesa baten menpeko eraikina. Trebeak, iaioak.
8. Airatu aditzaren infinitiboa. Koinatu.

Goitik behera:

1. Norbaiten edo zerbaiten alde egitea, babesa.
2. Musika obra.
3. **Argazkian.** Gehiegi.
4. Utikan! Protozoo mota.
5. Estetikan aditua.
6. Urtearen seigarren hilabete. Letra izena.
7. Bakoitzen jokamolde. Gauerditik eguerdira arteko denbora bitarte.
8. Egitekoak, arazoak.
9. Tankera.
10. Sorbalda. Elikatu.
11. Zelaia, toki laua.
12. Jardun.
13. Ontziaren egituraren ardatza.
14. Enara.
15. Ezpatak gordetzen diren zorro modukoa.

Kike Amonarrizen umorea

Jokaera eredugarria



Igandeko mezan, ustekabeen, apai-zak galdera hau egin die eliztarrei:

– Neba-arrebok! Elizatik atera baino lehen galdera bat egin behar dizuet. Hemen zaudeten guztion artean, zenbatek barkatu ditu gaur bere etsai guztiak? Altxa besoak!

Eliztarrek harriturik elkarri begiratu eta poliki-poliki besoak altxatzen hasi dira. Denek jaso dituzte besoak, amona xahar batek izan ezik. Apaiza harengana hurbildu eta honelaxe galdetu dio goxo-goxo:

– Zu ez al zaude zure etsaiak barkatzeko prest?

– Apaiz jauna, nola barkatuko ditut etsaiak, etsairik ez daukat eta!

– Hau handia da! –apaizak–. Eta zenbat urte dituzu?

– 102! –erantzun amonak.

Hori entzunda apaiza eta eliz-tarrak txaloka hasi dira. Esku zar-tak isiltzean, apaizak:

– Zu ereduia zara guretzat. Esango al diguzu nola iritsi zaren adin horretara etsairik gabe?

Eta amonak:

– Putakume horiek guztiak ni baino lehenago hil direlako!

Sudokuak

Erraza

		2					6	
9	8	3	5					2
1	6	7		9	4	3	8	
				7	8		9	
7		8				6		1
	3		6	1				
	4	9	7	3		8	5	6
3					5	9	4	7
	7					1		

Zaila

		8	2	7				
	6	4						
5				6			8	
	8	6	4					1
	2						5	
3					9	4	2	
	7			4				2
						8	3	
				9	1	6		

Soluzioak

8	7	5	9	4	6	1	2	3
3	1	6	8	2	5	9	4	7
2	4	9	7	3	1	8	5	6
8	3	4	6	1	9	2	7	5
7	6	8	4	5	2	3	1	9
6	2	1	3	7	8	5	9	4
1	6	7	2	9	4	3	8	5
6	8	3	5	6	7	4	1	2
4	5	2	1	8	3	7	6	9

Erraza

8	5	2	3	9	1	6	4	7
6	4	1	5	2	7	8	3	9
9	7	3	8	4	6	5	1	2
3	1	5	7	8	9	4	2	6
4	2	9	6	1	3	7	5	8
7	8	6	4	5	2	3	9	1
5	6	7	1	6	4	2	8	3
2	6	4	9	3	8	1	7	5
1	3	8	2	7	5	9	6	4

Zaila

Ezker-eskuin: 1. Danu, Erres. 2. Datarako, So. 3. Fax, Salati. 4. Egiati. 5. Ni. 6. Mengel, Negel. 7. Tolei, Oropakile. 8. Abadia, Abilak. 9. Aira, Ezkonamala.

Goitik behera: 1. Defentsa. 2. Adagio. 3. Taxi. 4. Ur. 5. Ameha. 6. Estera. 7. Koi. 8. Gort. 9. Aferak. 10. Soñ. 11. Naba. 12. Ekin. 13. Gila. 14. Elai. 15. Lek.

Euskal industriak trena hartu zuenekoa

“BETIDANIK garbi izan dut tren geltokietan zain ematen dugun denbora zentzumenentzat oparia dela”. Burdinbidearen Euskal Museoaren fundazioko zuzendari Maitane Ostolazak erakusketaren katalogoko hitzaurrean idatzitako hitzak dira. Eta apirilaren 28a baino lehen Irungo Amaia Kultur Zentroa hurbiltzen dena entzumenaren bidez murgil daiteke trenak gurean izan duen 150 urteko historian. Entzungailuen bidez, lurrin makinaren ufakotik hasi eta tren elektriko modernoaren burrunbara bitartean, hainbat audio entzun daitezke: tren zaharren txilibitua, geltokiko giroa...

Hormetan hainbat argazki eta azalpen-testu ipini dituzte. Baina erakusketako elementurik interesgarrienak objektuak dira: langileen txapelak, takografoak, bidaiaria txartelak (besteak beste, 0,15 pezeta balio zuen Urolako tren zaharreko txartela), txartel-zulagailu mitikoak, tren-makinen plano originalak, geltoki-buruaren turutak... Pieza edereen podiuma aukeratu behar bagenu, hauek lortuko lukete domina: tren-makinentzako erregulatzailea (1950), orratzak aldatzeko hiru suko argiontzia (1923) eta Compañía del Norte enpresako telegrafoa (1895). Geltokiko bulego zahar bat berregin dute, eta girotzen laguntzen duen dekorazioa ere zaindu dute: zenbait tokitan trenbideetako ohiko harri txin-txarra bota dute lurra eta bitrina batzuk errail herdoilduen gainean ipini dituzte.

Trena eta industrializazioa. Erakusketako objekturik zaharrena Trianoko geltokiko 1865eko horma-erlojua da. Trena funtsezkoa izan zen Trianoko meategietako lehengaia burdinoletara garraiatzeko, eta, oro har, industria-gune berrien garapenerako. Hortaz, garraibide iraultzailak garrantzia berezia izan zuen Bizkaian eta, bereziki Bilbo inguruan. Duela aste



Trenak 150 urte Euskadin

Erakusketa ibiltaria **Non:** Amaia Kultur Zentroa, Irun. **Data:** apirilaren 28ra arte. **Antolatzailea:** Trenbidearen Euskal Museoa.

batzuk Mikel Iturralde kexu zen *Treneando* blogean: “Ezaxola, interesik eza, apatia eta nagitasuna. Trena Bilbora iritsi zeneko 150. urteurrena oharkabea joan da. Efemeridea oroitzeko ekitaldi instituzional bat bera ere ez, hiriak (eta lurraldeak) burdinbideari hainbeste zor dion arren”.

Irunentzat ere trena garrantzitsua izan zen (eta Irun trenarentzat). Kokagune estrategikoa izaki, garai batean Norteko ferrokarrilaren, Bidasoakoaren, topoaren, Frantziatik zetozen lineen eta Hondarribirako tranbiaren ibilbideak bertatik abiatu / bertan amaitzen ziren. Erakusketa ibiltaria da, eta Iruneko geldialdian mugako hiriri eskainitako atal berezia prestatu dute. Beraz, zenbait tokitan behintzat trenaren etorrerak merezitako omenaldia izan du.

Berandu edo azkarregi. Erakusketak ederki jasotzen du garraibide honen xarma, baina ahulguneak ere

baditu. Geltokian zain dagoen bidaiariak trena berandu datorrenean pazientzia galtzeko arriskua duen bezala, erakusketako bisitari euskaradunak ere pazientzia beharko du paneletako testuen euskarazko itzulpen kaxkarra irakurri nahi badu.

Garaia baino lehen iritsi delako trena galdu duen bidaiaria ere ez da gustura egongo. Erakusketak ederki transmititzen du trena funtsezkoa izan zela Euskal Herriko izaera industrial taxutzerakoan. Horregatik objektu zaharrek uzten duten ahogozoa apur bat garraztu egiten du erakusketaren amaieran abiadura handiko trenari eskaini dioten atal zabalak; AHTren alde-bakarreko apologia egiten da, euskal gizartearen zati batek etorkizunerako funtsezkotzat ez eta kaltegarritzat jotzen duela ahaztuta. ■



Nagore Irazustabarrena

Fukushimaren inguruko komunikazio kanpaina

THINKPROGRESS.COM



FUKUSHIMAKO zentral nuklearra lehertu zenetik etengabe ailegatzen zaizkigu haren inguruko berriak. Lehenengo hilabeteetan erreaktoreen kontrola zen informazio gai nagusia, ondoren erradioaktibitatearen jomugak, gerora pertsonen eta animalien osasun arazoak... eta orain, denak nahastuta.

Inguruko herrietan tiroide-minbiziaren hazkundeak, martsuaren amaieran hozte-sistemaren etena arratoi batek sortutako zirkuitu-laburrarengatik, apirileko lehen asteburuan gutxienez 120 metro kubo ur erradioaktiboren ihesa, inork ez dakiela nola...

Fukushimako informazioaren zati bat baino ez zaigu ailegatzen: isilpean mantendu ezin dena. Eta japoniarrek euren agintari eta erakundeengan duten konfiantza gero eta txikiagoa da. Hori dela eta, zentrala kudeatzen duen Tepco enpresak bertako informazioa “hobeto” kudeatzeko erabakia hartu du. Esan gabe doa “hobeto” hitzaren itzalpean zentsura dagoela. ■



26 espezie berpiztu nahian

THE LONG NOW



THE LONG NOW FUNDazioak 26 espezieko zerrenda osatu du, berpizteko hautagai gisa: zor-tzi txori amerikar, bi ugaztun europar, tximeleta bat, martsupial bat, hiru ugaztun urtar, ugaztun afrikar bat, lau txori lehortar, bi txori tropikal, palmera bat eta historiaurreko hiru espezie

Fundazioaren arabera, bi irizpide hartu dituzte kontuan hautaketa egiteko: batetik, espeziea garrantzitsua izatea ekologiararen ikuspuntutik, eta bestetik, haren ADN inon gordeta izatea.

Espero bezala eztabaida berehala zabaldu da zientzialarien artean. Batzuentzat gizakiaren erruz galdu den ondare ekologikoa berreskuratzeko aukera izango da; beste batzuentzat, edozein unetan –irizpide batzuen arabera– espezie bat berreskuratzeko aukera izateak nolabaiteko



“zilegitasuna” ematen dio gizakiari ondare ekologikoa kalte-tzen jarraitzeko. ■

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Berotegi efektua moteldu ote denaren susmoak

Nature Climate Change argitalpean adierazi berri dutenez, Lurraren beroketa globala moteldu egin omen da Ozeano Atlantikoak eta tropikoek uste baino bero gehiago xurgatu dutelako. Hala ere, hori kasualitate hutsa izan daitekeela adierazi dute ikerketaren egileek.

ttiki.com/49298

(Gaztelaniaz)

Munduko biztanleriaren hazkundera etengo da?

NBERen ustez, 2100. urtean munduko biztanleria gehienez 15.800 milioi pertsonakoa izango da, eta gutxienez 6.200ekoa (gaur egungoa baino txikiagoa, beraz). Espainiar unibertsitate bik egindako estimazioaren arabera, kopurua hurbilago egongo da beheko mugatik goikitik baino.

ttiki.com/49299

(Gaztelaniaz)

Tomateen zaporea berreskuratzeko lanean

Tomatea hor eta hemen, neguan eta udan, espezie honetakoa eta hartakoa. Hainbeste eta noiz-nahi produzitzeak tomatearen zaporearen galera eragin duela esaterik badago. Hainbat zientzialarik uzta gutxitu gabe zaporea berreskuratzeko bideak bilatzen ari dira. Horretarako lagungarri izan daitezkeen zenbait gene identifikatu dituzte.

ttiki.com/49300

(Frantsesez)

Odolkia eta sugea

EUSKALDUNOK gurgai genituzkeen hamahiru landareen zerrendari hurritza, maspila edo basagurbea, hagina, lizarra, mihura, sagarrondoa eta haritza aipatuz ekin genion. Aldarearen osaerari segida emanez...

Hurrengo zumea, *Salix sp.* Ongi esanda zumeak. Zume asko baitugu. Eta denak gure bizimodu behar larri bat bete dute, lokarri izatearena. Lihoa eta kalamua garestia zirenean eta nylona eta plastikoak utopiatik harantzagokoak, zumeak lotu zituen gure zaku, fardel, pakete, bilgu eta sortak. Inoiz ez dut ahaztuko amona Joxepa zenaren sukaldean, txerri hiltze egunean ekonomikaren gainean pertza izugarri handi batean zume adarrez lotutako odolki sortak ur irakinetan nola sartzen zituzten, egin berritan egosteko. Adarraren lodiena uretatik kanpora, sartu eta atera sorta nahi eran ibiltzeko. Errioz beste aldeko Zaldierreka aldameneko Olanoenea baserrian ere sekula ahaztuko ez dudana imajina grabatu nuen garunean: dolarrerako bidean matxakan jotzeko zain, sagastitik ekarritako sagarra zakuetan, etxeko atarian; zakuak zumez lotuak! Ohorezko txokoa izan du, baita, saskigintzan. Garai batean ia etxeero urrutira gabe ikusten zen zume landa-



Ezkioko Igartubeiti baserriaren atari aurreko zumeak.




rea, neguan nabarmenago, adar gazteen azal koloretsu distiratsua agerian. Beste mende bateko kontuak, seko adierazgarriak, ordea. Landare genero berekoak izanagatik, *Salix* generoak, euskarak ederki bereizten ditu sahatsak eta zumeak, hegoalderagoko hizkuntzek ez bezala.

Intsusa ere, *Sambucus nigra*, zumea bezain senide izan dugu. Bata eta bestea katuaren mugari barrukoak ditugu. Oilategiko intsusa arbolaren irudia, txerri hiltzeko odolki sortaren argazkia jasota dagoen karpeta berean daukat. Intsusak etxea babestu izan du. Apo, suge eta tankerako-

ak uxatuz, gure imaginarioa eta alegiazko mundua elikatu du. Sugea behiaren errapera ez hurbiltzeko ukuiluko azpien azpian intsusa adarrak jartzen ziren. Bizitza alegiazkoa soilik ez denez, bi intsusa ditut nik etxe ondoan. Sugeen beldur lehena, aspaldi ezagutu nuen egunerokorako garagardoa intsusaz egiten zuen moja komentuarien gurtzan eta inbidiazko laudorioan, bigarrena. ■



JAKOBA ERREKONDO



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba! Giltxaurrondoak landatu ditut 0,5 hektareako bizkar batean. Kareharria dago, eta dena otez betea da. Landaketa-markoa 10x10ekoa da. Ez dakit ongi dagoen edo gaizki. Zuri zer iruditzen? Landarearen inguruan bi metro inguruko diametroa garbitu dut, eta ez dut intentziorik bertzea desbrozatzeko; otea utziko dut, horrela azienda ez da sartuko. Landarearen ondoan

—lurra mugitu dudana lekuan— moztutako oteak utzi ditut ongarritarako aprobetxatzeko. Ez dio kalterik egingo otea bertan usteltzera uzteak, ez? Landare batzuek 1,5 eta 2 metro inguruan dute, komenigarria izango litzateke mozte adarrak ateratzeko, edo hobe da hurrengo urtean kimatzea? Esker mila.

Iban Larratxea (Elizondo)

Kaixo Iban. Giltxaurrondoen markoa ona iruditzen zait. Hala ere, hazitik sortuak edo txertatutakoak dira? Hazietakoak badira, bakoitza tamaina batekoa egingo da, eta txertatuak mentu-oinaren arabera. Baina gutxi goiti-beheiti ongi dago. Otadiak lur oso aberatsak

dira. Ihartzen doan otearen orria azpian pilatzen da eta horrek lurra majo ongarritzen du. Arbola bakoitzaren ipurdiaren bueltan ebakitako oteak uztea ona da, bere kontra-kontran ez badago. Inausteari buruz, giltxaurrondoa oso bera da eta ahal dela ez da inausi behar. ■

Virgilioren euliaren hiletak desgrabatu egiten du

ERROMA, K.A. I. MENDEA. Publio Virgilio Maroni maskota hil zitzaion eta poeta ezagunak hileta arranditsua antolatzen zion. Gaur egun ere bada maskotari gizakiei baino omenaldi bereziagoa eskaintzen dionik, baina Virgiliorenak, bizirik zen artean, ez zion seguruenik asko lagunduko; izan ere, *Eneida*-ren egi- learen maskota eulia zen.

Intsektuaren hiletak Virgiliok Eskilino muinoan zeukan etxeko lurretan egin ziren, eta hiriko patrizio gailenak eta merkataria aberatsenak bildu omen zituzten. Hileta ereserkiak kantatu eta omenaldi testuak irakurri zizkieten diptero zenduari. Virgiliok berak ere hainbat olerki utzi zion hilkutxa ñimiñoaren ondoren, erostari profesionalen arrantza eta lantu artean.

Hilarri bikaina zizelkatu zuten maskotarentzat. *Ripley's Wonder Book of Strange Facts* (1957) liburuak jasotzen duenez, hauxe zioen hilarriko idazkunak: “Eulia, kutxa honek argia eman diezazula, eta zure hezurrek (sic) atsedan har dezatela”. Virgilioren euliak berezia izan behar zuen zinez —hezurrak zeukan intsektu bakarra izateaz gain— halako omenaldi garestia merezi bazuen; 800.000 sestertziotik gora kostatu zitzaion ospakizuna.

Pentsa daiteke eszentrikotasunak eta nabarmenkeriak eraman zutela idazle ezaguna hotsandiko hileta



Publio Virgilio Maron (K.a. 70-19) alboan bi musa dituela. Poeta bere maskota bitxiarekin azaltzen den artelanik ez zaigu iritsi.

garestia antolatzen. Baina benetako arrazoiak askoz praktikoagoak izan ziren.

Filipiko guduan Julio Zesarren hiltzaileak mende hartu eta gero, Bigarren Triunbiratuaren kezka nagusietakoa gudu zelaietatik etxera itzultzen ari ziren soldadu beterranen beharrak asebetetzea zen. Hiritar aberatsenei zergak igo zizkieten eta lurjabeen eremuak konfiskatzea ere erabaki zuten, lursail horiek soldaduen artean banatzeko.

Virgiliok agintarien artean lagun asko izanik, promulgatu baino lehen izan zuen dekretuaren berri, eta xehetasun garrantzitsua ere iritsi zen bere belarrietara: edonolako chorzketaren edo hilibiren bat zuten lurak ez zituzten konfiskatuko.

Eskilino lursailean hilibirik ez eta, inprobisatzea egokitu zitzaion idazleari. Izaki bizidunen bat ehortzeko, hil egin behar zuen lehenik, eta hobe euli bat akabatzeko senitarteko bat galtzea baino. Intsektua maite zuela eta omenaldi eder hura merezi zuela sinestarazteko, herri altxorari iruzur egiteko alegia, 800.000 sestertzio xahutu behar izan zituen. Baina Erromako zazpi muinoetako batean zeukan etxalde ederra ez zuten ukitu. ■



Arrastoak

Aparkaleku baten azpian aurkitu dute Ingalaterrako erregea



INGALATERRAKO RIKARDO III.A (1452-1485) Plantagenet dinastiako azken erregea izan zen, eta borrokan —Boswortheko guduan— hil zen azken ere bai. Shakespearek berak agintean bi urtez egon zen erregea tiranizat deskribatu zuen eta, legendaren arabera, Ingalaterran monasterioak

desegin zituztenean haren gorpua Soar ibaira bota zuten. Iragan udan Leicesterreko aparkaleku publiko baten azpian giza arrastoak topatu zituzten eta, berriki, ADN azterketaren emaitzak eskuetan, Rikardo III.aren eskeletoa dela baieztatu du Leicesterreko Unibertsitateak. ■

«EAJk herri honen independentzian sinesten du»

Bilbo, 1967. Igorre herrian bizi zela hasi zen politikan, EGI. EAJko BBBko presidentea da. Euskal filologia ikasia. 3Koma ekoiztetxean jardun du orain gutxi arte. Kazetaritzan ere aritu da. ETBko programazio zuzendaria izana da. Sabin Etxeko bulegoan hartu gaitu. Itxaso Atutxak bizkaieraz egiten du berba. Zeberion bizi da.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco



KOMUNIKAZIO arloan aritzetik politikaren lehen lerroan aritzera iragan da EAJko BBBko presidente berria. Itxaso Atutxarekin izan dugun elkarriketaren sarrerako berbak dituzue hauek: “Niretzat errazagoa da kazetariaren aldean egotea. Politikariaren lanak pazientzia eskatzen du. Ez dut politikariaren estereotipoa ematen oraindik, baina horretan ere

jausiko naiz. Neure estiloa landu nahi dut horregatik”. EAJko egituretan presidente kargua hartu duen lehen emakumea denez, genero gaia ere ipini diogu mahai gainean: “20 urte nituela genero gaia lantzen genuen alderdiaren batzarretan. Orduko emakumeen kezkak egun gaindituak izango zirela pentsatzen nuen. Haien adina daukat orain,

gauzak aldatu dira, baina geldo doaz, geldoegi”.

Kazetariak –hedabide handietakoak behintzat– boterearen mesedetan ari ei dira. Bat al zatoz?

Hedabide handiak, zoritxarrez, diruaren menpe ari dira. Horregatik beharrezkoak ditugu hedabide publikoak. Eta pribatuak ere, uga-



“EH Bilduk alderdi sozialistarekin akordio bat sinatzen duenean aurrerapausoa da, ezkertiarrek dira. Gu berriz, akordioa lortuz gero espainolistak gara”.

zaba berberen esku ez daitezen izan saiatu behar dugu, sentsibiltate ezberdinek leku izan dezaten. Nik beti defendatu dut hedabide publiko sendoak izatea.

ETB ezagutu duzu iragan urteetan. ETBko zein eredu nahiko zenuke?

ETB1k indartsua eta kate erreferentea izan behar du. ETBk Euskal Herrian zentzurik izango badu, eredu hori behar dugu. Azken belaunaldiek ETB euren aukeraz kanpo laga dute honezkero. ETB ez da euren erreferentzia; ez aurkezleei begira, ez berri-emankizunak, ez telesailak orobat. ETB1 indartsua izateko kalitateko telebista egin behar da. Generalista izan behar du, denetarikoa, jende askoren erreferentzia izan dadin. Euskal geografia ere kontuan hartu behar du.

Geografia...

Esaterako, Bilbon sekula izan ez den euskaldun kopurua dago, eta telebistan ez daukagu horren islarik. Ez Bilborena, ez Donostiarena ez euskaldunon bizitza urbanoarena, oro har. ETBk hori eskaini behar du. Euskal hiriburuen eta orobat herri urbano handietako euskal gizartearen bizitza eskainiko lukeen telebista behar dugu.

Bizkai Buru Batzarra (BBB) ei da EAJn pisu gehien duena. Zein neurrian ez du Bizkaiko eredu sozialak baldintzatzen EAJren norabidea? Bilbo hiri “espainoldua” dela eta, diot.

Egia da, gu gara erakunderik indartsuena alderdian, 30.000 bazkideetatik 24.000 bizkaitarrak dira. Eta horrek pisua dauka. Baina, zuk hiri hau ikusteko duzun modua ez da horrenbeste islatzen alderdi barruan. Esan dezagun –zuk aipatu duzun espainoldua adjektiboa kendu arren– bizkaitar erdalduna dela. Bizkaia ere

“Gu pragmatismo politikoan oinarritzen gara, ez daukagu hori adierazteko lotsarik, politika pragmatismoan datza”

herriak dira guretzat, eta alderdian herriek ikaragarritzko indarra daukate, hau da, herri bizitzak eta ohiturak, herriko *feelling* horrek. Bilbok berak baino askoz pisu gehiago dute sarritan herriek. Herriak oso indartsuak dira gure antolaketan. Ez nuke horrenbestekotzat joko zuk aipatutako inpresio hori.

Zazpiak Bat lema gogoan, EAJ alderdi bizkaitarra bihurtze bidean dagoela entzuten da noiz edo noiz.

Bai, niri ere esan didate hori: Euskadiko lehendakaria bizkaitarra da, EBBkoa ere bai. Bizkaitar bi dira alderdiaren eta euskal gobernuaren buruak. Nik herri bat daukat buruan eta herri horrek zazpi lurralde dauzka. Guk nazio konfigurazio hori daukagu helburu, eta benetan sinesten dugu horretan.

Espainiako Estatuarekiko autonomiaren markoa ez ote da subirano zaletasunaren kaltetan, neurri batean?

Bizkaiko EAJk, eta Eusko Alderdi Jeltzaleak osotara, abertzalea dela erakutsi du, ez autonomiazalea. Guk herri honen independentzian sinesten dugu. Hori eztabaidea da.

Bizkaiaren pisu ekonomikoak (Petro-nor enpresa, barbarako) Estatuarekiko harremana estutzen edo lotzen du. Ekonomiak ez ote du baldintzatzen burujabetasuna?

Mundu osoko harreman ekonomikoek baldintzatzen dituzte gure loturak eta mugak egun: Espainiaren ekonomikoak nahiz Europarekikoak. Zuk aipatu enpresa horretaz gain, Iberdrola edota BBVA ere aipatu daitezke. Baina zuk gure nortasunaren alde egin behar dugu. Herri hau ekonomikoki kudeatzeko eta aurrera ateratzeko gai garela erakutsi dugu. Beraz, enpresa horiekin daukagun harremanak ez luke gure eredua aldatu beharko. Esaterako, gu European egonda, enpresa horiei berdin zaie zuk Madrilekin edo Bruselarekin harremanak izatea. Enpresa horiek hemen giro egokia izatea nahi dute euren negozioetarako, guri ere onurak emango dizkigutenak. Besteak beste, lanpostuak sortuko ditugulako Bizkaian, Gipuzkoan edota Nafarroan. Guk harremanak berdintasunetan manatendu nahi ditugu. Beti argi utzi dugu, ez garelako bakarrik ari Madrilera begira politikan.

Artean baina, EAJren eta ezker abertzalearen politika bideak oso urrun daude elkarrengandik, antza denez.

Nik ere urrun ikusten ditut, eta nahi nuke askoz hurbilagoak ikusi. Gainera, Eusko Legebiltzarrean nolako gehiengoak ematen diren ikusita, askoz hurbilagoak izatea nahi nuke. Baina, hemen urruntasuna biok markatzen dugu. Gu azken hauteskundeetan ostean EH Bilduren gaitasuna hurbiltzen ahalegindu gara. Proposamen zehatzak mahai-gainean jarri arren, ez zituen onartu. Areago, gu beste alderdi batzuek gaitasuna hurbiltzen garen neurrian, EH Bildu, esaterako, PSErengana hurbiltzen da inongo arazorik gabe. Gurekikoan arazo gehiago sortzen zaio, antza denez.

Zerk eragozten du abertzaletasunaren bi espresio nagusiak elkarrengandik hurbilago ez egotea?

EH Bilduren bitartez instituzioetan sartu izana eragozpena bihurtu zaio ezker abertzaleari. Alegia, iraganean ez bezala, orain liskar politikoa instituzioetako lehian dago, botoen lehian. Egoera larria pasa ostean [legez kanpoko aldiaren ondoren] EH Bildu gure alternatiba izatea nahi dute. Zilegi dena, noski.

Ajuria Eneko maizterra izatea xede dutela egotzen ei diezue zuek. Eurek lehia pentsamendu hegemonikoan kokatu nahi dute, beste barik.

Gure irizpideetan lehia ez da pentsamendu hegemonikoa delakoan sartzen. Legebiltzarrean, Gipuzkoako Foru Aldundian, edo dena delakoetan partida bera jokatzeko ari gara eta eguneroko politikan eragozpenak sortzen dira elkar ulertzeko. Baina, hara, haiek alderdi sozialistarekin akordio bat sinatzen dutenean aurrerapausoa da, ezkertiarak dira. Gu berriz, akordioa lortuz gero espainolistak gara.

EAEko aurrekontuak lantzen ari dira egunotan Legebiltzarrean. Beste alderdien nahietatik urrun dago EAJren egitasmoa. Gizarte ordezkariak diren sindikatuen

nahietatik ere oso urrun. ELArekiko urruntasuna gero eta handiagoa, adibidez.

ELA EAJrengandik aldendu izana gauza historikoa da. ELAk EAJrekiko hartu duen jarrera hori presenteago dago gaur egun, hurbil zebilen urteetako jarrera hura baino. Ordea, ELAko kide asko EAJko kide dira, bazkideztza bikoitza dute. Besteak beste, EBBko presidentek berak [Andoni Ortuzar]. Nik LAB bera baino gogorrago ikusi dut ELA azken hilabeteetan. Bai Iñigo Urkullu lehendakariak bai Juan Mari Aburto kontseilariak hartutako erabakiekin, adibidez. ELAren jarrera eta adierazpenak oso gogorrak dira.

Horiek gizartearen egoera larria adierazten dute nolabait. ELak ez du baztertzen berriz ere grebara deitzea.

Nik ELAko jendearekin hitz egiten dut, gu ere gizartetik hurbil gaude. Gu ere gizartea gara, eta ez dugu ikusten gizartea grebaren beharrean, ezta nahia duenik ere. Nahi nuke jakin nork ordezkatzeko duen nor, eta zenbat ordezkatzeko duen bakoitzak. Niri ez zait heldu herritarren grebarako nahi edo behar hori. Areago, grebara deitzeko beharra aipatu du ELAk, ez nahia bakarrik, beharra. Greba egiteko beharra al dago?

Edonola ere, ekonomiaren kudeaketan EAJ PPrekin moldatzen da hobekien. Bizkaiko eta Arabako aldundietan hitzarmenak sinatu dituzue.

PPrekin akordioak ditugu, baina aldi berean, EITBren gaian, PSErekin ere akordioa lortu dugu zuzendaritza izendatzeko, baita Kontu Auzitegiaren eta Arartekoaren kasuetan ere. Gu, hala edo nola, batekin eta bestekin ahalegintzen gara, besteak ez bezala. Gu pragmatismo politikoa oinarritzen gara, ez daukagu hori adierazteko lotsarik, politika pragmatismoan datza.

BESARO LANDA HOTELA



*Iratiko oihanaren
sarreran*



Tel.: 948 890 350
www.besaro.es
hotel@besaro.es

www.facebook.com/HotelRuralBesaro





“Niri ez zait heldu herritarren grebarako nahi edo behar hori. Areago, grebara deitzeko beharra aipatu du ELAk, ez nahia bakarrik, beharra. Greba egiteko beharra al dago?”.

PSEk Jaime Otamendiri betoa jarri dio EITBko zuzendari nagusia izateko. Pragmatismoaren izenean onartu egiten da betoa.

Jaime Otamendi ezagutzen dut pertsonalki, profesionaltasuna erakutsi du ETBn lehen, eta orain Euskadi Irratian. Pertsona eta profesional ona da. Kudeaketan ere ongi aritu da. Noski, harreman politikoetan akordioetara iritsi behar duzunean, alde batekoen eta bestekoen urradurak ageri dira. Nik Otamendiren profesionaltasuna goian gelditu dadila nahi dut, inor hori zapuzten ahalegindu delako eta horrek ez dauka hitzik.

Baina betoa onartzen da, hori “ordainsaria” da politikan.

Akordio politiko guztietan ordaindu egiten da, sozialistek ere Gipuzkoako Batzar Nagusietan Bilduren akordioa lortzeko ordainduko zuten legez.

Urtebete da Ertzaintzak Iñigo Cabacas hil zuela. Ardurak ez dira argitu. Eskatu daiteke gehiago, ezta?

Bai. Lehenengo txarto jokatu zelako, eta hildakoaren familia argipenak eskatzen ari delako. Lehenik eta behin, zelako mina, ezta? Hala ere, horrelako prozesuak luzeak direla esaten digute adituek. Urtebete pasa da, diotenez izapideak luzeak dira, jende asko joaten delako deklaratzera, eta abar. Artean, gauza asko gertatu da, egia da. Beharbada erantzukizun politikoa azaldu behar zen, ez hainbeste tiroa egin zuen pertsona agertzeko, baina bai Herrizaingo Sailak berak zeukan erantzukizuna argitzeko. Hori da nik eskatzen dudana. Herrizaingo sailburu Estefania Beltrán de Heredia oso barnetik hartu du gaia. Azkenengo erantzulearenganaino joan behar dugu, Herrizaingo Sailak hartuko du erantzukizuna, gertatua argitu behar da.

Indarkeriaren beste espresioak daudenean, botereko instantzietatik gertaerak beste modu batez lantzen direla ematen du.

Egia da, beste kasuetan indarkeria erabiltzen dutenean erantzukizuna eskatzen zaie, eta beraz, horrelakoak gertatzen direnean instituzioetatik inoiz baino gardenagoak izan behar dugu, inongo zalantzarik geratu ez dadin, eta erantzukizunak ere zuritu ez daitezten.

“EH Bilduren bitartez instituzioetan sartu izana eragozpena bihurtu zaio ezker abertzaleari”

Hilketa istripuztat jo izan da. Boteareen mekanismoak bere interesak babesten al ditu?

Pertsonen bizitza tartean delarik, boterean bat izan edo bestea izan, gobernu karguetan gaudenoi eskatu behar zaigu erantzukizuna. EAJk Legebiltzarrean horrelako kasueta-rako komisio iraunkorra sortzea eskatu du —ez daitezen gerta hobe-gertaerak arinago argitzeko.

Xabier Lopez Peña ETako kidearen heriotzaren inguruan, Radio Euska-

din zuk egindako adierazpenak gaizki hartuak izan dira sektore batzuetan.

Bai, Twitteretik egurra eman didate. Agian txarto azaldu nuen esan nahi nuena. Nik berriro diot, kasu horretan edo beste ezeinean, familia ezin da informatu gabe egon hainbeste orduz. Familiak eskubide guztia dauka argibideak eskatzeko, eta gertatu guztia argitu behar da. Presoak ere eskubideak ditu. Ni horren alde agertu naiz beti. Ulertzen ez dudana da Espainiako eta Frantziako espertxe politikari egozte heriotza. Hori ez dut erraz nire eskeman ikusten.

ETak jardun armatua behin betirako lagata ere, ez dirudi oinarrizko eskubideak errespetatzen direnik.

Oraingo egoeran gobernuak legeen aldaketak eman beharko lituzkete beste egoera bat ahalbidetzeko. Salbuespeneko legeak aldatu behar dira, eta orain dauden zigorrak bete behar dira oraingo legearen arabera. Diotenez, beste bake prozesuetan ere arazoak sortu dira legeak aldatu behar izan direnean. Baina, egia da, esaterako, Espainiako Gobernuak ez du nahi preso hurreratzea eman dadin.

Aietetik gaur egunera pauso asko eman du ETak eta ezker abertzaleak oro har, Espainiako Gobernuak bat bera ere ez.

PPren une honetako jarrera ote den? Ez dakit. Espainiako Gobernuak badu pausoak ematea, baina Barne ministroak ez dauka gogo handirik, antza. Barne ministroak pausorik eman nahi ez arren, ETak eman lezake gehiago. Gobernuaren pausoak itxaron beharrean, Nazioarteko Egiatzapen Taldea deitu lezake armak entregatzeko, esaterako.

Posible al da hori egitea, horrela? Beste parteak egon gabe?

Nik uste dut beste parteak egon behar duela, baina ETak bere kabuz egin lezake zerbait gehiago, eta beharbada, Gobernua bortxa dezake mugitzera. ETak modu horretara azaldu lezake berak segitzen duela pausoak ematen. Agian, ondoren, Gobernuak eman dezake pausoren bat, adibidez, preso hurbilketa. ■



www.argia.com/multimedia



Beranduegi

Interneteko telebista saioa asteartero: umorezko albistegia, lehiaketa, elkarrizketak, erreportajeak, kultura...

Bideoak

Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.

Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.

Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.

Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.

Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.

Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpitoluekin.

Bereziak

Teknologia berriak baliatuz, informazioa emateko muntaia bereziak: kronologia interaktiboak, mapa ilustratuak...

Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

Urrezko Egunsentia, sistemaren misioa betetzen

Garai latzak bizi ditugu Europan. Grezia dugu, momentuz, kapitalismoaren gabeziak argien erakutsi dituen herrialdea. Demokrasiaren aitzindari den nazioa pairatzen ari den krisi politiko eta ekonomikoak %27ko langabezia utzi du, eta hamar gaztetatik sei lanik gabe dago. Eszena gogor honetan, neofaxismoak bere lekua aurkitu du.

| LIDE HERNANDO / AXIER LOPEZ |

ATENASEKO PLAZA bateko zoruan, “Atzerritarrak Greziatik at! Grezia Greziarentzat” dioen pintada ikus daiteke. Murru batean, “Holokausto berri batek herri hau garbituko du” dioen beste bat. Kalean, zenbait greziar ikus daitezke etorkin batzuei inongo ausikirik gabe irainak jaurtitzen. Greziar gizartean gero eta indar handiagoa hartzen ari den mugimendu nazionalsozialistaren isla dira zantzu horiek denak. Mugimendu horren ordezkari da Urrezko Egunsentia alderdia.

Alderdi honek Grezia “garbitzeko” ardura hartu du bere gain. Eskuin muturreko nazionalismoaz baliatuz, euren marko ideologikoan sartzen ez den ororen kanporaketa aldarrikatzen dute. Azken hauteskundeetan Urrezko Egunsentia 440.000 bozka eta 18 parlamentari lortu zituen. Lehen begiratuan gutxi diruditen arren, aulkiak lortu dituzten lehen urtea izateko kopuru handia da. Bozen legitimazioak gizartean eragin zuzena izan du: ezkerreko militante, homosexual eta, bereziki, etorkinen aurkako erasoak biderkatu egin dira.

Biktima horietako bat da Abu Zeid Mubarak arrantzale egiptoarra. *The Guardian*ek egindako elkarrizketan azaltzen duenez, gau batez terrazan lo zegocela zenbait neofaxistek eraso zuten: “Ni jipoitzen ari zirela esnatu nintzen. Hogei bat lagun ziren”, dio etorkinak. “Aurpe-



NPR / DIMITRI MESSINIS (AP)

Urrezko Egunsentiko kideek gogotsu ospatu zituzten hauteskundeetako emaitzak.

gia kolpatu zidaten eta metalezko inplanteak jarri behar izan zizkidaten. 27 egun pasa nituen ospitalean”.

Urrezko Egunsentia alderdiko jarraitzaileek etorkinei egotzen diete krisiaren errua. Alderdiko parlamentari Ilias Panagiotarosek argi du Greziaren “suntsipena” haiek eta beste zenbait gizarte taldek eragin dutela: “Gizartea prest da borrokarako. Alde batean, gu bezalako nazionalistak eta herria lehen bezala nahi duten zenbait greziar daude. Eta beste aldean, lege kanpoko etorkinak,

anarkistak eta Grezia makina bat aldiz suntsitu dutenak”.

Bada mugimendu honetako kideen jokaera munduari erakustez arduratu den pertsonarik. Konstantinos Georgousis zinema zuzendaria alderdi honek arrazakeria sozializatzeko duen erraztasuna erakutsi du ekaineko hauteskunde-kanpainak iraun bitartean grabatu zituen irudien bitartez; *The Cleaners* dokumentalean bildu ditu.

Bertan Urrezko Egunsentiaren parlamentari-gai bat ikus daiteke,

azoka batean alderdiaren panfletoak banatzen. “Bozkatu Urrezko Egunsentia. Herria zikinkeriaz libratzeko”, diote panfletoek. Bidean gurutzatzen duen etorkin orori irainak jaurtitzen dizkio: “Zabor hori niri begiratzera ausartu ez da ba! Pakistandar alua!”, “Greziarra al zara? Kendu paretik! Zu ez zara hemengoal!”.

4News telebista kateak Geogrou-sisi eginiko elkarrizketan, zinema zuzendariak dio alderdikideek euren jokaera harrotasunez erakusten dutela. “Kontziente ziren ni grabatzen ari nintzaiela, eta hala ere oso harro zeuden, euren jokaera Europa osoari erakusten ari zirelako, haien ideien publizitatea egiten ariko balira lez”. Greziako gizartearen zati handi batek nazionalsozialismoa zer den ez dakiela dio zinemariak, eta eskuin muturreko alderdiaren indar eta amorraren aurrean txunditurik gelditu direla gehienak.

Kalean Urrezko Egunsentia egindako presioak eragin du azken inkestek alderdiarenganako atxikimenduen gorazko joera marraztea. Zenbait inkestaren arabera %7tik %15era igo liteke alderdiaren babesa hurrengo hauteskundeetan. Indar horren ondorioz, gainera, euren ideiak boterean den Demokrazia Berria alderdira ere heldu dira. Kontuan hartu beharrekoak dira alderdi horretako Antonis Samarasek presidentetza lortu eta berehala esandako hitzak: “Etorkin klandestinoak herrialdetik bota beharko genituzke, gizartearen zapaltzaile bilakatu dira eta”.

Greziako indar armatueta, eta gehien bat polizian, alderdi nazio-

nalsozialista babes handia lortzen ari da bestalde, eta hori salatu duten ahotsak asko dira. Izena esan nahi izan ez duen polizia-buru batek *The Guardian* adierazi dion gisan: “Greziako polizian urte luzez biziraun duten faxismoaren hondarrak desagerrarazteko nahi adina politikorik ez da izan. Estatuko aparatuek, zerbitzu sekretuak eta segurtasun indarrek aspalditik dute Urrezko Egunsentiaren mugimenduaren berri. Gaur egun, Greziara aldaketa politikoa etorri gero, Urrezko Egunsentia eta indar errepresiboak Greziako ezkerren aurka erabili ahal izango lituzkete”.

“Faxistek askotan jipoitzen zaituzte poliziaren aurrean, eta ez da ezer gertatzen. Ez diete ezer esaten”

**Javet Aslam,
Greziako pakistandarren
komunitateko eleduna**

Al Jazeera argitaratutako bideo batek argi erakusten du poliziaren eta alderdiaren arteko lotura hori. Analisia egin ostean, hauteskundeetan, Atenaseko erdialdeko hautes-tontzietan Urrezko Egunsentia lortutako botoak %7,8 izan zirela ikusi zuten. Polizia-etxeak gertu zituzten beste zenbait gunetan, aldiz, alderdiak %20,3rainoko bermea lortu zuen. Panagiotarosek babes hori berretsi egiten du gainera: “Nire ustez gaur egun polizien

artean %50 edo %60tik gorako babesa daukagu. Agian gehiago, egunero handitzen ari baita”.

Javet Aslam pakistandarren komunitateko eledunaren hitzek ere egia gordina erakusten dute datu horiek: “Faxistek askotan jipoitzen zaituzte poliziak geldiarazi zaituztenean. Polizien aurrean egiten dute eta ez da ezer gertatzen. Ez diete ezer esaten. Are gehiago, animatzen dituzte ‘Jarraitu! Zure alboan gaude’ esanez”.

Badira eskuin muturreko mugimenduen kontra ari diren gizarte-ko hainbat sektore. Alderdi Komunistak gogor ekin dio neofaxismoa salatzeari. Bertako parlamentari Liana Kanellik zera dio: “Gamelu ideologiko eta politikoak dira, bel-dur diren herritarrak polarizatzen dituztenak. Desesperatuta eta ikararuta dagoen herriaren aurrean oztopo, muga bezala agertzen dira”. Azken aldian, gainera, faxismoaren aurkako mugimendua indarra hartzen ari da kaleetan. 2012ko abuztu-tik urrira bitartean 120 manifestaldi antifaxista izan dira.

Greziako egoera nahasiaren ondorioz sortutako jokabideok aldatzea, errotik egin beharreko gauza da. Kanelliren ustez, ordea, gauza zaila da hori: “Azken batean, sistemak eman dion misioa betetzen ari da Urrezko Egunsentia”. Arrazakeria gaitz erdi bezala onartzen duen sistema honen aurrean ezkerreko mugimenduek langile herriari alternatiba erreala eskaini beharko diote, European inoiz itzali ez diren faxismoaren suek berriz indar hartu ez dezaten. ■



Foie plantxan

Bartolo
taberna - jatetxea

**Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala**

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

JOSEP MARIA ARTIGAL

Bigarren hizkuntzen irakaskuntzan aditua

Hiztunak entzulearen emozioa du nahitaezko

Martxoan XX. Jardunaldi Pedagogikoak burutu zituen Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak Gasteizen. Haur Hezkuntzari begira jardun zuten hizlariak.

0-6 urte bitarteko etapa hori gogoan, Entzuten gaituzten neurrian ikasten dugu hizketan izeneko hitzaldia egin zuen Josep Maria Artigal irakasle katalanak.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

MODU OHIKO-EZOHIKOAN ekin zion hitzaldiari Artigal irakasleak, Europa biltzar jauregian izan zen jendea elkarrengana biltzera deitu baitzuen. “Denok ikusi behar zaituztet. Amaieran emango dizuet azalpena”.

Euskal Herriko ikastolekin duen lotura gogorarazi zuen hasieran Artigalek, 21 urte baitaramatza haiekin elkarlanean. Esan zuenez, munduan barrena batean eta bestean lan egin den arren, “gehien-gehiena hemen egin izan dut lan, bertan bildu izan ditut irakaslerik gehienak”.

Artigal 1978an hasi zen bigarren hizkuntzaren irakaskuntza lantzen. Ordukoan, katalana zuen irakasgai. “Franco 1975ean hil zen, eta eskola publikoan hasi berriak ginen katalanez ez zekiten haurrei katalanez erakusten. Ordura baino lehen, lehen hizkuntza katalana zuten umeekin lan egin nintzen eskolan, baina 1978ko hartan, nire ardurapeko gelan haur batek ere ez zuen katalana lehen hizkuntza. Eta zer egin?”. Eta, hitzaldiaren puntu honetara heldurik, katalanez hasi zen Artigal, aski garbi eta guztiok entenditzeko moduan. “Orain zuei katalanez ari naizen bezala hasi nintzen, poliki, hitzak aukeratuz, eta aste baten buruan, haurrek, dena



ulertzen zidaten. Zuek bezala. Jakina, ez da euskararen kasua... Denek entenditzen zidaten, baina inork ez zuen hitz egiten. Orduan, pentsatzen hasi nintzen zer egin ote nezakeen, katalanez hitz egin ziezadaten”. Eta, alternatiba bila, ipuina hartu zuten ardatz, ipuinaren kontatzea.

Batetik, hitz idatzirik gabe. Bestetik, marrazkirik gabe. Azkenik, ipuinaren barruko pertsonaien arteko elkarrizketak indartuz.

Irakasle-mintegiak

Laster, 1981ean, irakasle-mintegia sortu zuten problema bera zuten

irakasleen artean. Artigalek berak zuzentzen zuen saioa. “Hasteko, ipuina kontatzen nien. Irakasleak ipuina nork bere modura hartu eta gelan kontatzen eta erabiltzen zuen ondoko asteen. Hurrena biltzen ginenean, nork berea azaltzen zuen, zerk balio izan zion, zerk ez... eta aztertu egiten genuen guztion artean. Hura ez zen ikastaro ez beste, mintegi bat baizik”. Horretan, Generalitatek jakin zuen mintegi haien berri eta Hizkuntza zerbitzuetan lanean hartu zuen Artigal. Kataluniako Gobernuarentzat egin zuen lan bi urtez. “Zazpi neska ziren nirekin batera mintegi lanetan. Lehenengo urtean, 1.200 lagunekin jardun genuen lanean. Bigarrenean, 1.500 izan ziren. Saioak egiten genituen. Batean egindako lan-proposamena, handik hamabost egunera aztertzen genuen”. Harik eta lan hura utzi zuen arte. Orduan, han ikasitakoa, ipuinak kontatzeko era hura, beste leku batzuetara zabaltzen hasi zen. Eta alemanez, suedieraz, ladinoz, okzitaineraz, ingelesez, euskaraz... lan egin izan du harrezkero. “Irakasle jendearekin hitz egitea izan da nire lana, egiten dugun lana aztertzea. Ariketa horixe egin dut behin eta berriz eta askotan. Ipuina kontatu, aztertu, bestek kontatua aztertu, gogoeta egin, berriz kontatu...”. 35 urtean horixe egin omen du, praktikatik teoriara eta teoriatik praktikara jauzika.

Hizkuntza, hiria

Aipu bat baino gehiago baliatu zuen Artigalek bere hitzaldiaren haria josteko. Tartean, Rubert de Ventosen bat, “irakasten direnean ikasten dira gauzak, ez ikasten direnean”, edo Goetheren hau: “Ez da aski jakitea, kontatu egin behar da”.

Joan den 35 urtean horixe ikasi duela zioen Artigalek. “Hasieran, ipuina ondo kontatzen saiatzen nintzen, ahal zenik eta ondoen kontatzen, pentsatuz, nik ondo kontatzen banuen, neska-mutikoez ere halaxe kontatzen ikasiko zutela. Nik kontatzen nuen hizkuntzan, jakina. 35 urte iragan dira, eta uste dut nire lana ez dela ipuina kontatzea, neska-mutikoez konta dezaten lortzea baizik. Haiek konta dezaten, eta besteok, nik tartean, entzutea”.

Teoriatik praktikara eta praktikatik teoriara bizi izan da Artigal, eta bere jardunbidearen marko teorikoa jardun zuen. Horretarako, Chomsky hartu zuen bidelagun. “50eko hamarkadaren amaieran galdera egin zuen Chomskyk: ‘Nola esan genezake gizakiok inoiz entzun ez dugunik? Nola ikas leza-

“Gauzak egiten ikasiz, elkarrekintzan, hizkuntza-mapak sortzen dituzte haurrek, orientabidea lantzen dute”

kete neska-mutikoez inoiz entzun ez dutena esaten?”. Haurren inguruarik begiratzeko diogularik —izan guraso, osaba-izeba, anaia-arreba, lagun...— askotan, gaizki hitz egiten dute. Input ez nahiko bat jasotzen dugun arren, nola ikasten dugu hain ondo hitz egiten?”. Eta galderari erantzuten jardun zuen Artigalek ondoren, Noam Chomskyren esan bidean. “Chomskyren arabera, edo nik haren gogoeta neure erara ulerturik, hizkuntza espazio bat da, orientazioa duena. Zer esan nahi dut? Bada, ni Gasteizko kalera irten, pare bat itzuli egin eta ziur da norgabe ibiliko nintzatekeela, ez bainaz hemengoa, ez baitut hiria eza-

“Hizkuntza-mapak amarekin eraiki dituzten haurrek, hizkuntzaren egitura sintaktikora heltzeko askoz oztupo gutxiago dituzte, mapok amarik gabe eraiki dituzten haurrek baino”

gutzen. Eguzkia izanez gero, baliteke nola edo hala orientatzea. Baina ez dut hiria ezagutzen, eta galduta nintzateke. Aldiz, gasteiztarra banintz, jakingo nuke esaten non dudan etxea, areto honetatik irteteke ere! Hemendik elkarrekin

irtengo bagina eta hiriko kaleetan barna gasteiztarren batekin ibili, arbola, etxe, kale eta auto berak ikusiko genituzke denok, eta argazkiak egingo bagenu, gauza bera ikusi dugula esango ligukete. Baina gasteiztarrek orientaturik ikusi ditu ikusteko guztiak, eta guk aldiz, ez”. Eta, Artigalek horixe edan du Chomskyren iturritik: hizkuntza, izan, hiri bat da, orientabidea eskatzen duen espazioa. “Hizkuntzan —nola hirian— ez ditugu arbolak, etxeak, kaleak, autoak... hitzak ikusi behar, haiek hirian duten lekua baizik. Hirian ongi orientaturik bazeundete, zein bere lekuan jarri ahalko zenituzkete elementu guztiak. Hizkuntzaren kasuan, izen sintagma baten barruan, adibidez. Orientaturik dagoenak, katedrala ez ezik, haren ingurua, lagunekin egindako ibilerak, bizipenak ikusten ditu”. Erran nahi baita, hizkuntzara itzulirik, desorientaturik dagoenak hitzak ikusten dituela, baina ez haien hizkuntza-hirian betetzen duten lekurik. “Lekuak ikusi behar dira, eta lekuak ikusitakoan, hitzaren kokapena ere ikusiko dugu, dela esaldiaren aurrean, atzean edo dena delakoan. Lekua ikusi ezik, ez dago orientabiderik, ez dugu jakingo hitzak non ezarri”.

Artigalen arabera, eta Chomskyren iturritik betiere, orientabidea ez dago esplikaterik. Inork ez du azaltzen, inoiz ez du esplikatzeko. Haurrak, aldiz, jaiotzen den momentu beretik daki hitzak zein leku betetzen duen katean. Lekua da nahitaezko. “Eta dio Chomskyk gizakia jaiotze beretik dagoela hirian ibiltzeko orientaturik. Hiri hori hizkuntza da”. Hizkuntza-hiria.

Hizkuntza, mapa

Hizkuntzan, elementuak ez baina elementu haiei dagozkien lekuak non diren jakitea da beharrezko eta ezinbesteko. “Egitura sakonaz mintzatuko da Chomsky. Haurrek mapa bat dute, amagandik jasotzen dute hizkuntzan barna orientaturik ibiltzeko. Adibide bat: erromatarren hirian, bi kale ziren nagusi. Bata zen *cardo*, bestea *decumanus*. Hiria goitik behera eta ezker-eskuin banatzen zuten. Zaragozako eta Bartzelonan-



ko planoak ekarri dizkizuet ikusgai: bi kale horien bitartez, erromatarra bateko edo besteko hirira heldu eta orientaturik zegoen, eguzkia lagun. Bada, Chomskyk esango digu guztiok ere mapa bat dugula buruan, eta edozein hiritara –hizkuntzatarra–, joanik ere, orientaturik bizi garela. Zehatzago, Chomskyk esango du hizkuntza bat ikasteko haren egitura morfosintaktikoa ulertu eta ikasi behar dugula, bestela guztiz ezinezko izango zaigula erran delako hizkuntza ikastea”. Eta, egitura sintaktiko hori hizkuntzaren baitako joko eta jolasa litzateke, ez gurasoek erakutsitako ezer, amagandik jasotako ezer. “Edo egitura sakon horretaz jabetzen da haurra, edo ez du hizkuntza behar bezala ikasiko”.

Hizkuntza, elkarrekintza

Chomskyk bere gogoeta plazaratu eta 15 urtera, 1975ean, K. Bruhlerrek, psikologo eta hizkuntzalari alemanak, oharkizunak egin zizkion amerikarrari, ez baitu sinetsiko hizkuntzan orientaturik bizitzeko gaitasuna jaiotzatikoa denik, ez zer bat linguistikoa dela ere. Bruhlerrek ama-semeak, ama-alabak grabatu zituen eguneroko lanean, dela jolasen, dela bainatzeko garaian, dela

jaterakoan... Bruhlerrek iritsiko duen ondorioaren arabera, amasemeek, ama-alabek eraikitzen dituzten mapak ez dira testu soil, testuinguru baizik, elkarrekintza dira, espazio-denbora jakin batean gauzatu direnak. “Hizkuntza-

“Haurrak ulertzen du ez esaten ari dena zehazki, ulertzen du mapa, eskolan egin duguna, espazioa eta denbora, eta bizi izan ditugun emozioak”

mapak amarekin batera eraiki dituzten haurrek, hizkuntzaren egitura sintaktikora heltzeko askoz oztopo gutxiago dituzte, mapa horiek amarik gabe eraiki dituzten haurrek baino. Ikerketen arabera, umezurtegiaren hazitako haurren %70ek hizkuntza zailtasunak dituzte”. Haurrak guraso, lagun, kide, zaintzaile, irakasle eta gainerakoen ondoan bizi dira, haien ondoan hainbat gauza egiten ikasten dute, eta gauzak egiten ikasiz, elkarrekintzan, hizkuntza-mapak sortzen dituzte,

orientabidea lantzen dute, eta hain zuzen, orientabide horrek geroan beste hiri batzuetan, beste hizkuntza batzuetan ibiltzeko baliabideak emango dizkio haurrari. “Maparik ez duenak, aldiz, neke izango du inolako maparik ulertzen”, zioen Artigalek. “Haurrak eskolan orientabidea landu behar du, mapa, egitekoen mapa, esatekoen mapa erabiltzera irits daitezen”.

Hizkuntza, erabiltzailea

Robert di Pietroren aipu bat baliatu zuen ondoren Artigalek Gasteizko hitzaldian. Di Pietro ingelesa bigarren hizkuntza gisa irakasten eta ikertzen ari da lanean aspaldi. Delako aipuak dioenez, “erabiltzaile garen heinean iritsiko gara hizkuntza bateko ikasle izatera”. Artigalek esaldiaren esanahia zehaztu nahi izan zuen, inor tronpa ez zedin: “Erabiltzaile izatea zer da, ordea? Ahoa irekitzen dugun aldiro gara erabiltzaile... Baina ez, ez da aski hitz egitea, hitz egiten dutenek erabiltzaile jarrera hartzea da nahitaezko. Horretan, Dante hartu nahi dut lagun, haren gogoeta bat: ‘Zer edo zer egiten edo esaten dugun aldiro, geure buruak ikusgarri egiten ari gara’. Di Pietrok esaten zuenez, batzuetan, hitz egin arren ez dugu ahotsik. Eta hitz egiten dugunean ahotsik ez badugu, ez dugu hizkuntzarik. Hau da, hitz egiten dugunean inork ikusten ez bagaitu, ikusgarri ez baldin bagara, ez dugu hizkuntzarik”.

Ahotsa izatea, ikusgarritasuna izatea. Horretaz jardun zuen hitzaldiaren amaiera aldera Artigalek, haurrak zituelarik gogoan. “Ikasleek ahotsa eta ikusgarritasuna izaten dituzte, ahotsa ematen diegunean, gauzak egiteko aukera ematen diegunean. Eskolan, hizkuntzaren mapa morfosintaktikoa, ekintzen eta bozen eta ikusgarritasunen mapa eraiki behar izaten dugu. Horiek eraikiz gero, bai, orduan hobeto hitz egingo dute ikasleek”.

Esan dugunez, ipuina hartu ohi du abiapuntu Artigalek, abiapuntu hartu ohi dute harekin bat egiten duten hainbat eta hainbat irakasle. Tartean, Euskal Herriko askok. Gasteizko saioan, esaterako, jardunbidea frogatu zuen Artigalek,

ipuin bat alemanez kontatu baitzuen, ikusleari esanaraziz, ulertaraziz, eta bizian lehen aldiz alemanez mintzaraziz. “Lehenengo egunetik, hitz egin duzue alemanez. Lehenengo egunetik hitz egiten du haurrak delako bigarren hizkuntzan, izan katalana, euskara, ingelesa, suomiera edo beste. Hala ere, mapa bat osatu dugu, leku jakinak ezarri ditugu –ezkerrean da beti protagonista, eskuinaldean antagonista–, eta leku horri era batera, eta kontrara, eusten dioten elementuak baliatu ditugu: era bateko keinu, galdera eta mugimenduak egingo ditu ezkerrean ageri den protagonistak, kontrako keinu, galdera, mugimenduak egingo ditu eskuinaldean antagonistak. Horrek esan nahi du, egun batean, haurrak liburua –edo berak osatu duen liburu gisakoa, haurrak liburua egiten baitu eskolan lau, bost urterekin– hartzen duen egunean, badakiela zertan ari den: titulua ageriko da ezkerretik eskuinera; protagonistak hitz egiten duenean, ikusleari begira agertokiaren ezker aldean izango da; antagonistarena egiten duenean, aldiz, ikuslearen eskuinaldean... Keinua, imintzio eta mugimendu horien bidez, haurra ipuinaren eta hizkuntzaren mapaz jabetuko da, eta jakingo du alderdi batean hau eta bestean hura esango duela, lekuaren jabe delako”. Eta haurrari etxera joan eta ipuina gurasoei kontatzeko agintzen badiogu mapa erabiliko du, ezkerrean protagonista ageriko da, eskuinean antagonista, eta handik hona ibiliko da ipuina kontatzen duen bitartean. “Hizkuntza ulertu gabe ere, haurrak ulertzen du ipuina, ulertzen du ez esaten ari dena zehazki, ulertzen du mapa, eskolan egin duguna, espazioa eta denbora, eta bizi izan ditugun emozioak. Horregatik ulertzen du ipuina, eta horregatik esaten du haurrak ‘ipuina egingo dugu. Haurrak ez du esaten ipuina konta-

Ipuina ingelesez

“Gaur goizean Sabadelleko [Herrialde Katalanak] Nostra Llar eskola bisitatu dut. Oso ondo joan da. Hemeretzi ikasleko taldea hartu dut, aurretik ingelesez inoiz lan egin gabea. Gelara sartu naizenean, haur batek esan dit ez zuela ingelesik ulertzen. *The Balloon* ipuina kontatzen hasi gara, eta narrazioaren erdi aldera, ulertzen ez zuela esan duen haur hark berak esan du: ‘Orain bai, badakigu ingelesez!’”.

(Irakasle batek Josep Maria Artigali zuzendutako mezua).

tuko dugu”. Alegia, denbora, espazioa eta emozioak ari dira bizi-bizi jokoan. Ipuina gurasoei kontatzen dieten haurrek, honenbestez, esaten ei dute: “Nik ingelesez hitz egiten badakit”. Artigalen arabera, besterik ere egin dute haur horiek: “Egunero gauez umeei ipuina kontatzeak gu aita-ama egiten gaitu, ikusgarritasun horixe ematen digu.

“Ipuina kontatzen duelarik, ahotsaren jabe egiten da haurra, ikusgarritasuna irabazten du”

Hein berean, haurra etorri eta ipuina gurasoei edo aitatxi-amatxiei kontatzeak bere jarduna emozioz betetzen duelarik, seme-alabago egiten du haurra, ilobago, ikasleago...”.

Bakarrak, errepikaezinak

Hitzaldiaren amaiera heldurik, beste autore baten aipua hartu zuen

makulu Artigalek. Hanna Arendt. Eta dio: “Behi bat hilko balitz, ez litzateke galduko errepika ez daitekeen ezer. Aldiz, laguna, umea, kidea, lankidea, seme-alaba... hilko balitz, inork ez luke haren hutsunea bete ahaliko, gizakia errepikaezina delako, behia ez bezala”. Artigalen esanera, errepikaezinak gara, boza eta ikusgarritasuna ditugulako. “Horregatik etorri naiz ni hona, boza eta ikusgarritasuna izatera, horregatik egon naiz zutik, ez jarrita, eta guztiei begira, horregatik esan dizuet bata besteagana elkartzeko, hizketan ari nintzen bitartean denoi begiratu ahal izateko. Hona etorririk nornahi izateari utzi diot. Gizakiak horregatik egiten ditu egiten dituenak, nornahi izateari uzteko. Ipuina kontatzen duelarik, ahotsaren jabe egiten da haurra, ikusgarritasuna irabazten du. Hara, haurrak hitz egiten duelarik ikasten du hizketan, eta norbaitek entzuten dionean, haren esanek inor hunkitzen dutenean, entzun duen hori dena delako arrazoiagatik gustatu zaiola esaten dionean”.

Ahotsa eta ikusgarritasuna. Emozioak. Elkarrekintzan eraikitzen den hizkuntza. “Hori egiten ez badugu, mapa hori eraikitzen ez badugu, orientatzeko behar dugun lehen mapa ez dugu izango, eta mapa hori gabe gaizki ibiliko gara. Hitz egiten ikasten dugu, lehenago, hitz egiten dugun bitartean egin ditugun gauzak egiten ikasi dugulako, eta, aldi berean, hurkoa eta geure burua era bakar eta berezian ikusten eta erakusten ditugulako”.

Artigalen arabera, hizkuntzak beste ezerk ez digu horretan lagunduko, hau da, munduan ahotsa izaten, geure buruak beste milioika lagun artean ikusgarri egiten. Bakar eta errepikaezin garelako, behiak ez bezala. ■



Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure
artean!
euskaraz



BFA
DFB

Ikasgelan denak gaztelaniaz, batek hala nahi duelako

KATALUNIAKO AUZITEGI GORENAK esan du: guraso kataluniarrek haien seme-alabek gaztelaniaz ikastea nahi badute ikasgela osoak gaztelaniaz egin beharko du. Autoek ez dute auzitan jarri 30 urteko ibilbidea izan duen murgiltze eredu (dena katalanez), baina era berean, ikasgela osoa gaztelaniaz egitera behartuko dute ikasle bakar baten eskubidea bermatzeko. Generalitateak ezetz esan du, ez duela esandakoa beteko, eta eskola katalanaren aldeko ehundik gora elkarte biltzen dituen Som Escola plataformak ere gauza bera dio. PP eta Ciudadans izan dira auzitegiaren autoak txalotu dituzten bakarrak, ERC, PSC, ICV-EUiA eta CUP alderdi politikoei kontra-ko iritzia eman dute.

Orain arte, gaztelaniaz aritzea eskatu duten haurrek gainerako ikasleengandik bereizita ikasi dute.

10 ikastetxetako 17 familia baino ez dira eskaera hori eginga dutenak.

Josep Maria Cervelló Som Escolako kidea da, eta haren ustez, hiru hamarkadatarako murgiltze ereduak arrakasta baino ez du izan. Katalana ikastetxe guztietako hizkuntza ardatza bihurtzeak ez du gatazkarik sortu, alderantziz, elkarbizitzarako eta bake soziala lortzeko giltza izan da. Gaztelania hitzunei eta milaka eta milaka etorkinei katalan hitzunen aukera berak izateko oportunitatea eman die katalanak. Cervellóren iritziz, eskolak ezin du espazio neutroa izan. Esate baterako, ezin du guraso bakoitzaren gustuaren arabera-koa izan, “nik katalanez nahi dut”, “nik gaztelaniaz”. Hanka-sartzea litzateke horrela jokatzeko, eta katalanaren bidez gizartearen kohesioa lortzeko egindako ahalegina pikutara joango litzateke.

Bahea

Koldo Tellitu Ikastolen Elkarteko lehendakariak Berrian duen Ereiaro blogean esanak:

“Ez dakit zeri buruz ari diren ‘azken urtetan’ ala ‘azken urte luzetan’ bezalako esamoldeak erabiltzen dituztenak, baina duela urte asko gure hezkuntza sistemaren azterketa bat egi-terakoan Ikastolak argi ikusi genuen Derrigorrezko Hezkuntza amaitzerakoan, ikasleriak ez daukala euskararen eta gaztelaren ezagutza orekatua, euskararen kaltetan.

Duela bi legegintzaldi jakin genuen, azpimarratuko dut, bi legegintzaldi, Euskal Autonomia Erkidegoan ereduaren emaitza zein zen ikasleen aldetik euskararen menperatze mailari zegokio- nean, derrigorrezko eskolaratzea amaitzean. Hartu al da neurri eragin- korrik geroztik egoera honi aurre egi- teko? Erantzuna borobila da. EZ. Zortzi urte galdu dira. Zortzi urte arazoa existituko ez balitz moduan jokatzeko.

Beraz, zertaz ari dira LOMCEk euskarari eragiten dion kaltea ‘azken urteotan emaniko pausoak guztiz balio- gabetzen’ dituela esaten dutenak?”

TERMOMETROA • EKONOMIAREN TALAIAN

Banku eta zerga sekretuak ezabatu

HERRI SEKTOREEK eta langileek euren larrutan jasaten duten krisi hau larritzen ari den heinean, paradisu fiskalak –lapur kobazuloak– zein neurrikoak diren erakusten duten gero eta datu gehiago dago. Espainiako Estatuko IBEXean kotizatzen duten enpresen %90ak, kobazulo horietan filialak dituzte. Kazetari Ikertzaileen Nazioarteko Partzuergoak paradisu fiskalak negozioa egiteko edo dirua ezkutatzeko erabiltzen dituzten munduko 130.000 politikari eta enpresariren datuak azaleratu zituen. Era berean, Tax Justice Network ikerketa prestigiotsuak dio 21 eta 32 bilioi dolar (24 bilioi euro) zeudela 2011n paradisu fisikaletan. Munduko aberastasunaren laurdena litzateke, eta funtsean, banku eta multinazional handienek gorde dute hor. Espainiako Estatuaren iruzur fiskala BPGaren %20 eta %25 artekoa da, hau da, bilioi bat euroko BPGtik 200.000 eta 250.000 milioi euro. Zifra horri batez besteko presio fiskala ezarritik gero, 75.000 milioi euro lortuko lituzkete.

Zergatik ez dira gobernuak ados jartzen lapur kobazulo horiek ezabatzeko? Londresen 2009an egin zen G-20 Gailurrak esan zuen “banku sekretuen garaia amaitu” dela. Hala ere, lapurren paradisu horiek inoiz baino indartsuago daude. Hortxe babes- ten ditu kapitalismoak bere lagunak, milioika lagun miseriara, langabeziara eta suizidiora bideratzen dituen bitartean. Ordua da banku eta zerga sekretuak ezabatzeko. Gobernuak, nahi izanez gero, legeak aldatuz egin dezakete hori. Baina kapitalismoaren kudeatzaile direnez, ez dute nahi. Euskal Herrian, gure foru ogasunek banku eta zerga sekretu horiek ezabatu beharko lituzkete, eta iruzurgile handien ize- nak publikatu. Beraiek dira murrizketa laboral eta sozialen benetako arduradunak. Herrita- rren eta langileen mobilizazioen helbu- ruetako bat horrek behar luke.

Juan Mari Arregi



Zerga igoera etxe hutsei

Ondasun higiezinaren gaineko zergaren aldaketa onartu zuten iaz Gipuzkoako Batzar Nagusiek: ohiko bizileku ez diren etxebizitzetako %150 arteko erretegia ezartzea baimendu zieten hala egin nahi duten udalei. Aurten ikusiko dira lehen emaitzak eta Euskadi Irratiko Mezularia saioan eman dituen argibideak Itziar Miner Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Politikako zuzendariak.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

GIPUZKOAKO 50 bat udalek neurria beren ordenantza fiskalean onartu dutela jakinarazi du Minerrek. Tartean udalerririk handienak daudenez, gipuzkoarren %85 inguru horietan bizi da. %50eko erretegia onartu dute udal gehienek.

Zerga politikan urrats esanguratsua da Gipuzkoan eman dena eta hiru helburu dituela nabarmendu du zuzendariak: “Batetik, garai zail hauetan finantzatzeko baliabide berriak lortzea udalek, gehiago due-

nak ekarpen handiagoa eginez; bestetik, etxebizitza hutsak merkaturatzeko akuilua izan daiteke; eta azkenik, aitortu gabeko alokairuak Ogasunean aitortzeko modua ere bada”.

Zarauzko Hirigintza eta Ogasun eta Finantza zinegotzi Iñaki Eizagirre ere gaiak mintzatu da *Mezularian*: Zarautzen 11.000 etxebizitzatik 2.800 dira ohikoak ez direnak, eta %100eko erretegia aplikatuko zaie. Alegazio epea irekita dago eta

batez ere kanpotarrak etorri dira azalpenak jasotzera. “Zarautzen zarautek eta gazteak behartuak izan dira inguruko herrietara joatera, ia ezinezkoa izan delako Zarautzen etxebizitza izatea (jabetzan nahiz alokairuan) eta neurria bultzada bat da herriko jendeak aterpea izateko helburuan”, adierazi du Eizagirrek.

255.000 etxebizitza huts baino gehiago daude Euskal Herrian. ■



“Niri ere gertatzen zait nire sintomak Interneten bilatzea eta okerrago geratzea”

Ona da gauza berdin asko edukitzea

Zatoz **ONARA**, eta ordaindu gutxiago.

Ona denez gauza berdin asko edukitzea, hemen da **ONARA**. Finkoa, Mugikorra, Internet eta Premium TBa elkartuta, guztietan aurreztu dezazun. Bai lehendik bezero bazara, eta bai etorri berria bazara.

ONAREkin soilik:



Eskatu informazioa zure saltokian edo www.euskaltel.com/ona webgunean

Etxean Zuntz bidezko Internet daukaten bezero zahar nahiz berrientzako abantaila eskusiboa da ONA, Euskaltelarekin mugikorra eta Premium TBa (aukerakoa) kontratatzeagatik edo kontratatua izateagatik ematen dena. BEZA ez dago sartuta.

Euzkadi-ko langile iraultzaileen kooperatiba Mexikon

Ugazabek hiltzera kondenatutako enpresa langileek bereganatuta kooperatiba bihurtzea ez da ez gaur ez Grezian asmatua. Mexikoko TRADOC pneumatiko ekoizlea berezi egiten du hain handi eta arrakastatsu izateak... eta, guretzako, Sindicato Nacional Revolucionario de Trabajadores de Euzkadik sorrarazi zuela jakiteak.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

MEXIKOKO LANGILE MUGIMENDUA astindu zuen gatazka gurean Jabi Zabalak aipatu zuen 2007ko abenduan lehenbizikoz *Sarean* blogean: “Euzkadi, bertako langileen eskuetan”. Ez genion arreta handirik eskaini, tamalez. Orain AEBetako sindikalgintzan erreferentea den *Labor Notes*en Jane Slaughterrek eskaini dio kronika luzea: *Mexican Workers Win Ownership of Tire Plant With Three-Year Strike* (Langile mexikarrek gurpil fabrikaren jabegoa irabazi zuten hiru urteko grebarekin). Lantokiak bata bestearen ondotik ixten ikusten ditugun garaiotan bada zer ikasia haiengandik.

“*Euzkadi es el nombre del País Vasco en la lengua de esa antigua nación. La palabra fue utilizada, en un evidente rasgo de añoranza nacionalista, por don Angel Urrea para bautizar la fábrica*”... idatzi zuten *Reforma* aldizkari mexikarrean. 19 urterekin Bizkaitik harantza emigratutako Angel Urrazak 1928an sortua zen Cía. Hulera Euzkadi. 1936az geroztik Ohioko Goodrich Co. enpresarekin elkarlanean Goordrich-Euzkadi firma kudeatu zuen Urrazak, Mexikoko eta munduko beste konpainia askotan lortu zituen karguez gain.

Fundatzailea 1946an hil eta askoz beranduago, 1998an, Continental Tire multinazional alemanak hartu zuen 1.164 obrero edukitzera iritsia

zen Euzkadiren kontrola. Ugazaba alemanek ekarri zituzten eraso antisindikalak ere, berehala fueratu baitzituzten 18 sindikalista nabarmenenak. Langileek gogor eginda lortu zuten berriro enpresaratzea.

Orduko giroaz idatzi du Slaughterrek: “Garai hartan pneumatiko fabrikak erortzen ziren euliak bezala Mexikon: Goodyear, Uniroyal... NAFTA akordioen ondorioz 1996tik 2000ra bitartean hiruz biderkatu ziren gurpil inportazioak Mexikon. Firestone, enpresak kontrolatutako sindikalistek onartu zuten jornalak %25 jaiste”...

Baina Continentalen plantako langileen artean 1935etik nagusi zen sindikatu gorri bat, Sindicato Nacional Revolucionario de Trabajadores de Euzkadi. Haiek umiliarazteko Portugalen antzeko taldeak menderatzea lortu izanaren fama zeukan kudeatzailea ekarri zuen Continentalek, José Neto Carvalho. Soldata eta gainerako lan-baldintza guztien murrizketa orokorra iragarri zuen Carvalhok, enpresaren emaitza txarrak argudiatuz.

Langileek ez zituzten erabakiok onartu eta patronalak 2001eko abenduaren 16an enpresaren ateak itxi zituen. Nagusiek langileetako batzuk erosi zituzten, enpresaren eskaintza berriaz konbentzitutako zuten lankide bakoitzagatik saria

Irudian Michael Henger dokumentalgilearen *Gurpilak berriro biraka* filmaren aurkezpen iragarkia. Euskaldunari zirrara eragiten dio “*sobre el triunfo de los extrabajadores de Euzkadi*” horrek. Irudi txikian Engerren ondorian ageri da Jesus Torres, Euzkadiko langileen lider sindikala orduan eta TRADOC kooperatibako lehendakaria gaur. Torresek kontatu du nola iritsi ziren enpresaren jabe egitera, Continental multinazionalak erdia eskaini zienean 2004an: “Guk esan genien [beste erdiaren jabe ziren] Llanti Systemsekoei ‘eros ezazue fabrika, guri pagatu atzerapenak eta zuentzako egingo dugu lana’. Guretzako garaipenik handiena izango zen, fabrika berriz zabaldu eta lanpostuak mantendu. Baina esan ziguten: ‘Ez, ez gara oraindik erotu, badakigu zertara iristeko gauza zareten. Jabekide nahi zaituztegu, ez enplegatu’. Eta orduan esan genuen ez baldin bazen beste biderik, saiatu beharko zela”.

eskainita. Arrakasta gutxiarekin, 940 obrerok batzarrean bildurik erabaki baitzuten greban sartzea.

Grebarekin gertatzen da legezko korapilo bitxi bat, ondoko historia guztia baldintzatu dutena. Enpresak lantegia itxi zuela zioen eta obrerok, aldiz, greban zeudela... eta gaia auzitegira iritsi zen. Hiru urte luze-ko auzia, hiru urteko greba, 1.141 eguneko erresistentzia.

Akziodun etikoen laguntzaz

Gaur TRADOC izena daukan kooperatibaren buru den Jesus “Chuy” Torres sindikalistak kontatu ditu erresistentzia horretako zertzeladak *La victoria obrera en Euzkadi* liburuan eta batik bat Michael Enger zinegile alemanaren *La huella de los neumáticos* dokumentalean; horren bertsio berriak *When the Wheels Start Turning Again* titulua darama eta erakutsi dute zenbait telebistatan. Internetez ikus daiteke, berriz, Guadajarako unibertsitateak ekoiztutako *La huelga de Euzkadi* dokumentala.

Enpresak ahal zituen hari guztiak mugitu zituen langileak etsiarazteko: soldatarik ez emateaz gain, obreroen senide eta lagunak *zerrenda beltzean* sartu zituen El Salto hiri inguruetako beste inon enplegurik lortu ez zezaten, fabrika husten ahalegindu ziren behin eta berriro,

La cadena internacional de Alemania **Deutsche Welle**
Presentará el documental a nivel mundial

“Los neumáticos vuelven a rodar”

El próximo **jueves 28 de octubre** a través de las
señales de **televisión por paga**
que transmite su programa
“Prisma” de Deutsche Welle.

El documentalista alemán,
Michael Henger
ha preparado una nueva versión de
su premiado film “La huella de los
neumáticos”, sobre el triunfo de
los ex trabajadores de Euzkadi y la
conformación de la cooperativa Tradoc



En Jalisco será transmitido
por Megacable y Telecable a las
jueves 28 de octubre a las 17:30
horas. Otros horarios consultar la
página <http://www.dw-world.de/dw/9797/0,,13017,00.html>



politikarien babesari esker poliziek
zanpatzen zituzten langileak...

Obreroek, aldiz, mobilizazio
agenda zabala abiarazi zuten. Mexi-
kon bertan biltzar eta ibilaldi franko
burutu zuten. AEBetan pneumati-
kogileen sindikatuetakoa liderretara
jo zuten baina hauen erantzun onik
lortu gabe.

Euzkadiko sindikatuko burukide
batzuek Europako sozialistekin
zeuzkaten harremanei esker lortu
zuten espero ez zuten laguntza.
Alemanian bada Akziodun Kritiko-
en Elkarte deitua –Azkiadun Eti-
koak ere deitzen diete beren
buruei– saiatzen dena multinazio-
nalen urteroko batzarretan plazara-
tzen minorien ahotsa. Horiei esker
Torres mintzatu ahal izan zitzaion

aurpegiara Continentalen akziodu-
nen batzarrean Manfred Wennemer
presidenteari. Ez zuen mesprezua
baizik jaso erantzun gisa.

Bigarrenez 2003. urtean eman
zioten akziodunok aukera Torresi
eta lortu zuen enpresaren egoeraz
publikoki eztabaidatzea ugazabare-
kin. Zalaparta Alemanian ere zabal-
tzen ari baitzen, horko Ekonomia
ministroa hasi zen aferaz interesa-
tzen. Alemania da Mexikon gehien
inbertitzen duen herrialdea, AEBen
ondotik noski.

2004ko batzarrera berriro konbi-
daturik, unibertsitateko irakasle
batek eta diputatu batek lagundurik
azaldu zen Torres. Continentali
konplikatzeko ari zitzaion El Saltoko
istilua, urte horretan marka ari zela-

ko lortu nahian futboleko Mundu-
ko Koparen esponsor izatea.

2004an gertatu zen askorentzako
ezustekoa: Mexikon epaile batek
ebatzi zuen langileen greba legez-
koa zela eta ondorioz enpresak hiru
urteko atzerapenak pagatu behar
zizkiela langileei. Usinak balio bal-
din bazuen 80 milioi dolar, kalte-
ordainak 40 milioioak ziren. Abuz-
tu hartan Wennemerrek eskaintza
egin zien obreroei: kalte-ordainen
truke enpresaren erdia zuentzako
eta beste erdia gurpilen banatzaile
mexikar batek har dezala.

Horrela, Europako akziodun kri-
tiko batzuen laguntzaz eta Mexiko-
ko legediak duela gutxi arte langileei
uzten zien zirritzu bati esker, iritsi
ziren sindikalista gorri batzuk beren
enpresaren erdiaren jabe izatera.
Llanti Systems banatzailearekin
elkarlanean aritzeko TRADOC
kooperatiba sortu zuten.

Baina saltzea nekezago lortzen
baita fabrikatzea baino, produktua
prezio egokitan kaleratu ezinean
azkenean AEBetako Cooper Tirere-
kin egin behar izan dute tratua. Jane
Slaughter kronikagileari TRADO-
Ceko buruek aitortu diote elkarbizi-
tza errazegia ez daramatela AEBetan
politika antisindikal gogorra buru-
tzen duen Cooper Tire sozioarekin.

Langileen batzarrak gai nagusie-
tan erabakitzeko ahalmena eduki-
tzea aski ez dela eta, TRADOCeko-
ak hasi omen dira antolatzen
salmentari helduko dion adar bat.
“Gure historiari ez
diogu uko egingo. Gu
kooperatiba gara eta
langile klasea da gure
klasea”. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Berriz hauteskundeei begira

YOLANDA BARCINAK

legealdiari eutsiko ote dion hala ez, hori da berriz galdera Nafarroan. Kongresuaren aurretik, UPNko aparatua ere aurka jarri zitzaionean, lehendakari egunak agortzeaz zituela pentsatu zen, baina ezustean, kongresua irabazi eta eutsi egin zion, bere irudia sendotzea lortuz.

Zentsura mozioak, aldiz, berriz ekarri du lehen lerrora bere ahulezia eta Miguel Sanz, Enrique Maya eta Alvaro Mirandaren inputazio judizialek nabarmen indartu dute ataka estua. Bere parlamentari izaerak urrundu du amildegitik oraingoz, baina batzorde iraunkor horretako laugarren kidea izanik, oso posible da Espainiako Auzitegi Gorenak bera ere inputatzea. Oro har, iraunkorreko lau zaldunak inputazio haueetatik libre ateratzen badira, Barcinak arnas apur bat hartuko du, bestela gainbehera areagotuko da. PPK Eusko Jaurilaritza utzi zue-nean, zenbat aldiz esan zuen Patxi Lopezek ez zituela hauteskundeak aurreratuko? Eta Jose Luis Rodriguez Zapaterok, asteazken arratsalde gogoangarri haietan, zenbat ezezkoekin erantzun zion Espainiako Kongresuan Mariano Rajoyri? Gero eta argiago dirudi, kome-ni zaionean UPNk ere aurreratuko ditu.

Oso gaitza da lehendakari batek legealdiari halako egoera batean eustea: aurrekontu luzatuak, funtsezko legerik aurrera atera ezinean, krisi egoera latzean neurri sendoak hartu ezinik, murrizketa gogorrekin, UPNren barruan arazo handiekin, ustelkeria kontuak... Pentsa liteke, beraz, Nafarroako lehendakaria ere bere abagunearen bila dabilela. Inputazioetatik libratzen badira, halako



NAVARRA.ES

zerbait pentsa dezake Barcina andereak udazkenari begira: “Gainditu dut alderdikoa, gainditu ditut inputazioak, orain da Nafarroako gizarteari ordagoa luzatzeko unea: edo ni, edo oposizioaren kaosa”. Oso bere estilokoa litzateke.

BILDU-NABAI-KO indarrek aurreztutako zentsura mozioak 18 boto lortuko ditu, Ezkerra eta Geroa Bai-ren baiezkoko kritikoa eskuratu ondoren. Baina 26 boto beharko lirateke Barcina kanporatu eta Juan Carlos Longasek bere lekua hartzeko. Eta PSNk ez du halakorik nahi, eta ez dago garbi 2015eko udaberria baino lehen halakorik nahiko duen. Hamar urtetan Nafarroako Legebiltzarra ez da irauli, baina asko aldatu da. 2003an Aralarrek, EAK eta EAJk zortzi eserleku zituzten. NEBk lau. Orain indar berberak gehi ezker abertzaleak 18 dituzte. Sei jarleku gehiago asko da, baina are gehiago da ekimen horren buruan ezker abertzalea bera dagoela ikustea.

UPN estu agertuko da, baina oposizioak bota ezin duen harresia da oraindik ere. Eta ezin du bota, PSNk nahi ez duelako. Aitzakia, Bildu. Eguesibarren onar dezake zentsura mozioa, hartan Bildu ere ezinbestekoa izan bazen.

Gipuzkoako Diputazioan edo Donostiako Udalean izan daitezke akordioak Bilduren aurrekontuak onartzeko. Nafarroako Legebiltzarrean ez. Orain arte UPNrekiko ezin alden du horrek gainbehera ekarri dio (Urralbururen garaian 19 eserleku, egun 9), eta itxura guztien arabera, ezer egin ezean hala jarraituko dute.


Nafarroako indar politikoak hauteskundeetan pentsatzen ari dira dagoeneko eta ez litzateke komeniko egoera hau asko luzatzea, horrek gobernu jardueran behar bezalako indarrarekin ez aritzea dakarrelako. Bizi diren garaio-tan, krisiak gobernu zabal eta sendoak behar ditu. Eta gerria malgu.

Zalantzarik gabe, oposizioaren indar erakustaldia hor dago, baina egia da baita ere, gaur gaurkoz oso gaitza duela alternatiba eratzea. Gerora ere, eserleku kopuruak emango du, baina nork gidatuko luke Gobernua? Horra beste koska handi bat. Bilduk badaki oso gaitza duela hori bera izatea, baina bototan indar klabea da; PSNk nahiko luke, baina akaso beste guztiek ez, eta gainera dagoeneko zenbakiek ez diote aukera hori emango. Geroa Baik sekulako esperantza du alde horretatik, eta bere burua ikusten du oposizioa zentralitatean PSN eta Bilduren arteko bisagra lanetan. Egia esan, orain arteko hautagai sendoena dute. Gaur gaurkoz, Barcinari aurre egiteko oposizioak duen hautagai egokiena seguru-erik. Yolanda Barcina edo Uxue Barkos, behar bada hori izango da Nafarroako datozen hauteskundeetako dilema nagusia. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Kontzertua

Petti, Harkaitz Cano
eta Joxan Goikoetxea
"Gau-beranduan"

Maiatzak 4, larunbata 22:00tan
Sutegi Kultur Etxeko Auditorioan
USURBIL

5 harpidunentzat
bina sarrera **1**




Kontzertua

Benito Lertxundi
Kantatuz

Et Incarnatus orkestra
Apirilak 26, ostirala 22:30tan

Leidor Antzokia
KMK13 TOLOSA

Harpidun batentzat
bi sarrera **2**



Inguru Abentura

Espeleologia (I. maila)
4 harpideentzako bina saio

San Juan kalea, 18
Albeniz ARABA

www.inguruabentura.com

3



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

3 harpidunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

4



Argia kamiseta

2 kamiseta opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2363. Argia)

BILBOKO KAFE ANTZOKIA

- Blanca Calleja Prada (Gasteiz)

INGURU ABENTURA Puenting II. maila

- Maite Arregi Tejeria (Villabona-Amasa)
- Juan Jose Belamendia Senperena (Azkoitia)
- Elixabete Perez Gaztelu (Oartzun)
- Jabier Altzorritz Lardies (Bilbo)

ILLIMANI liburua

- Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa (Gernika-Lumo)
- Manuel Arregi Urrutia (Zestoa)

ARTIUM Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

- Olaia Elortza Iñarra (Zegama)
- Alkizado Udal Liburutegia (Alkiza)
- David Cascan Porben (Barakaldo)

ERRITMOA, KAZETARIEN BATUTA liburua

- Bego Montorio Uribarren (Durango)
- Jose Antonio Elorza Aranberri (Zarautz)
- Elgoibarko Aek Euskaltegia (Elgoibar)
- Peio Garmendia Garmendia (Arrigorriaga)
- Antton Idiakez Korta (Ezkio-Itsaso)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia



Leire Barberena

GARAREN eroslea

«Feminista den egunkari bakarra delako. Astero editorial bat izaten du gai honen inguruan»



GURE AHOTSA • GURE BALIOAK • GURE HERRIA

posible egiten du

Berari esker lortzen dugu, eta berak bezala, GARA erosten duten milaka laguni esker, gure mezua egunero 243.000 lagunengana iristea. Bere konpromiso horrek egiten du posible existitzea bai egunkari hau, bai NAIZ eta gure ahotsa gero eta jende gehiagorengana eramaten duten beste euskarri guztiak.

Gure irakurleak ditugu sostengu bakar. Alde horretatik, hedabide bakarrenetarikoa gara. Eta independente egiten gaitu horrek. Gure hedabidea aurrera ateratzeko konpromiso irmoa dugu, errealitatea ulertzeko, aldatzen ahalegintzeko eta guztiontzako etorkizun hobe lortzeko lagungarria delako.

GUZTION ARTEAN POSIBLE EGITEN DUGU